

Karkara

karkara.com

Orioko eta Aiako aldizkaria · 2014ko urtarilaren 31 · 347 zenbakia. 25. urtea



Aia-Orio, bi herri, hamaika istorio

Mugakide izanda, nahitaezkoa dute elkarren arteko harremana Aiak eta Oriok; gozoa batzuetan mikatza besteetan. Tirriki-tarraka, elkarlanean, bakoitzak bere bidea egin du.

09

Erreportajea

Talai Mendin aldaketak

12

Akuilua hartuta

Eli Lasa

31

Oroimena

Anjel Lizaso

35

Udalaren txokoa

Osteguneroko azoka

PUBLIZITATEA

pertsona mundialak ditugu atsegin



**2013/2014
Ikasturteik aurrera
DBH dugu.**




Zaragueta
Herri Eskola Orde
dugu atsegin

Matrikula epea
Otsailaren 3tik 14ra
Ate irekiak
Otsailaren 1ean, 11:00-13:30



347

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Lore Berasaluze,

Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Lore Berasaluze
Miriam Garcia,
eta Idurre Lizarralde

Publizitatea

Iban Eiguren

Testuen zuzenketa

Elizabete Manterola
eta Rikardo UzkudunAle honetako
laguntzaileakAitor Arregi,
Onetsine Arrizabalaga,
Eneko Balerdi,
Iñigo Fernandez,
Josu Galdos,
Itziar Urretabizkaia

Diseinua

Saioa Perona

Logoa

Belen Ibarrola (Euskalkom)

Banatzaileak

Esti Uranga eta
Leire Zinkunegi (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzun-
kizunik. KARKARAN argitaratuta-
koa berreman daiteke, osorik
edo zatika, baldin eta iturria
aipatzen bada.

LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala

Eusko Jaurilaritza
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabideaGipuzkoako
Foru Aldundia

HASI BERTSOTAN

ROSI LAZKANO (DOINUA: BLOWING IN THE WIND, BOB DYLAN)

Nola bizi duzue zuen sexua?

Kursal jauregian, Bertso Egunean

1

Sentitzen deguna esateko
beraz sentipena bota
eta gaur hemen gainera nago
ni nerbio danak jota;
beraz ez naiz hasiko saltoka
armairu gainea igota
eztarritik ta beste hortatik
nahiko sekua nagota.

2

Hemen egia esan behar da
dena esaten hasita,
eta ni nago garai bateko
eskola hartan ikasita,
gainera gauza danak gordetzen
gordetzen gordearazita
konformatzen naiz bat ikustez
irripartxo bat jantzita.

3

Batek behin hola helduta faborez
nahi al dezu laguntzia?,
lagun danak mutil banakin
pena aukera galtzia,
bi kilometro ta erdi etxera
ahoa lotsakin itxia
bera ez dakit nolakoa zen
bai zeramakin jertsia.

Rosi Lazkano erdian. XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA-GARI GARAIALDE

Publizitatea kontratatzeko:
Iban Eiguren
688 859 682
karkara@karkara.com

karkara.com

Ikastolatik eskerrak

Tartetxo hau hartu nahiko genuke, abenduaren 24an elkartasun tonbola martxan izatea posible egin zuten horientzat guztientzat. Aurtengoan ere, beste behin, jende andana izan da DBH 4. mailako ikasleoi laguntzeko prest agertu dena: opariak eman dizkiguten merkatari eta ostalariak, Udala eta egunean bertan txartelak erosten gastua egin zuten herritarrek. Eskerrak eman nahi dizkiegu, oraindik ere badelako gurean, emateko badagoenik, eskuzabala denik: mila-mila esker!

Jakin ezazue 3244 euro lortu ditugula orotara ekimen honekin, eta urtero bezala erdia Ruandara bideratuko dugula eta beste erdia ikasketa bidaiako gure gastuak kitatzeko moldatuko dugula.

Euroak gora-behera aurtengoa joan da eta datorren urtekoa ere etorriko da. Gauzak ongi bidean, eta elkarlanerako gogo bera izango denez, han izango gaituzue 2014an ere Gabon egunean. Urte ona igaro ezazuela! ■ **Orioko Herri Ikastolako DBH4ko ikasleak.**

Karkararen abiadura

KARKARAK abiadura handiko trenean joan nahi omen du orain. AHT bertan behera gera daitekeenean Lapurdin, eta hegoaldeko trenbidea bidegorri bihurtu nahian gabiltzanean, ziztu bizian pasako da Oriotik. AHTren kontra gaudela uste nuen eta begira nondik Karkarak indartu nahi duen. Abiadura omen da kontua. *Slow* mugimenduak indartzen ari diren garaian azkartasunaren bila edonola. Nire uste apalean, abiadurak baino inportantzia handiagoa du nondik pasatzen den eta ze ikuspegi ematen duen ezker-eskubi. Mantsoago joanda hobeto ikus daiteke herriko martxa.

Lehen hamabostero pasatzen zen Aia-Orio geltokitik. Orain hilabetean behin. Bost minutu azkarrago pasako da baina maiztasuna erdira etorriko da. Orioko eta Aiako euskararen normalizazioan laguntzeko sortu zena hilean

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektroniko honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko ize-nik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egileak nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, Karkarak esan egingo dio.

KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

behin besterik ez dugu izango paperean. Hala ere, tren birtuala noiznahi pasako omen da. Ez omen du lurrean inor utziko. Nik nahiago dut bidegorrian zehar ibili. Seguruagoa, ekologikoagoa eta merkeagoa da. Eta gorriagoa ere bai, noski.

Tren berriak herritar guztiontzat omen du lekua. Hobe bai hala balitz baina zalantza handiak dauzkat, orain arte KARKARA taldeak ez du hori erakutsi eta. KARKARA lagunok ez dugu izan ez abiadurari eta ez maiztasunari buruzko iritzia emateko aukerarik. Ezta KARKARAREN ereduari buruz ere. Nik uste nuen KARKARA lagunok parte hartzeko aukera izango genuela baina oker nengoen. Erabaki estrategikoak beste maila batean hartzen dira nonbait. Nola igoko naiz tren horretara halako abiaduran pasatzen bada?

Esaerak dioten bezala, gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan hartu.

■ **Alberto Agirreazaldegia.** Karkara laguntzailea eta kolaboratzaile-ohia

Gureak taldeko zuzendaritzari erantzuna

Urtarrilaren 7an, hainbat oriotar eta aiarrek Gureakeko Zarauzko lantegian eman diote hasiera lan urte berriari. Azkenaldian, hainbat hedabidetan

izan dugu honen berri eta KARKARAKO azken alean ere, zuzendaritzaren agurra eta oriotar guztiei eskainitako esker ona irakurtzeko aukera izan genuen.

Idatzi honen bitartez, familion egoe-ra eta gure senitartekoen lan baldintzen berri eman nahi dizuet, bigarren mailan geratzeaz gain, honen aipamenik ez baita inon ere agertu, eta ez nago prest ixil-ixilik pasatzeko.

2013ko abenduaren 9an deitu gintuzten bilerara familia guztiak, aldaketaren berri emateko helburuarekin. Hau da, hilabeteko tartearekin eta kontutan izanda Gabonetako oporrak zeudela tarteko. Oriotarrentzat egingdako planteamendu edo proposamen bakarra honakoa zen: Orion goizeko 7.15ean hartu trena Zarautza joateko, ondoren 25 minutuz herri barruko autobusa etorri arte itxaron Azken Portuko goiko geltokian geratzeko eta, ondoren, 500 metro oinez egin behar lantokira. Arratsaldean, lantokitik ateratzean, berdin: 17.10ean utzi lana, herri barruko autobusa hartu, eta ondoren tren geltokira. Bertan, beste 25 minutuz itxaron trena hartzeko eta ondoren, 18:08an Oriora. Ibilbide hori guztia, monitore edo zaintzailerik gabe. Hori bai, familiartekoen gain utziz ardura osoa.

Nire galdera da: ze bizi kalitate eskaini behar diegu gure senitartekoei? Gure familiako kideen denbora libre hipotekatu behar al dugu, Gureak enpresak baliabiderik eskaintzen ez digulako? Zergatik horrelako zailtasun eta oztopoak, lanean gustura aritzen diren pertsonak lanera bidaltzeko? KARKARARI eskainitako elkarriketan jartzen zenuten bezala, pertsona horien autonomia bultzatzea lehenetsi nahi dugu. Familiartekoak gara lehenak horrela izateaz arduratzen garenak eta horrenbeste urtetan, beren egunerokotasuna are eta xamurragoa izan dadin ahalegintzen garenak, baina ez gaude ados edozein baldintzatan lanera bidaltzeko.

Horregatik, gure senitartekoek Zarautza lanera joateko izango lituzketen zailtasunei irtenbide bat bilatzeko as-

moz, Orioko familia guztiek bilera bat egin genuen abenduan eta garraio publikoa baino erosoagoa izango litzatekeela kontuan hartuta, autobusa guk geronek antolatzea adostu genuen, horrek dakarren gastua gure gain hartuz; gure poltsikotik ordainduz, alegia, nahiz eta langileen hitzarmenak bestelakoa dioen.

Gureakeko zuzendaritzarekin zuzenean hainbat alditan hitz egiten saiatu naizen arren, momentuz ez dut ezertxo ere lortu. Hori bai, argi eta garbi utzi nahi dut, zailtasun eta oztopo hauek guztiek ez gaituztela kikilduko eta jo behar diren ate guztiak joko ditugula gure familartekoen eskubideak defendatzeko.

Onez esandakoa gaizki ez hartu eta Gureakeko zuzendaritzako kideei esan, zuen berri izatea gustatuko litzai guke, sortarazi diguzuen egoera zail hau zuzendu eta bideratzeko. ■ **Maitane Mujika.**

Abaromendiko aparkalekuko utzikeria

Karkarazale baten bitartez jakin dugu Abaromendiko aparkalekuan gertatzen denaz. Itxura denez, sexu harremanak izateko leku aproposa zaie bikote askori leku hori. Harreman horien arrastoak uzten dituzte lurrean botata. Garbitasun eta errespetua zor zaie ingurukoei eta gutxienez horiek jasotzeko eskatu nahi du.



Bazkide bila

Gure Etxea elkartetik jakinarazi nahi dugu sozietatean bazkide berriak hartzeko moduan gaudela eta bazkide izateko gogoia dutenei elkarteko kide izateko erraztasunak emateko prest. Elkarteko zuzendaritza batzordeko kideekin harremanetan jar zaitezke gureetxeaelkartea@gmail.com helbidera idatziz edo astelehenero 20:00ak aldera Gure Etxea elkartean egiten dugun bilerara azalduz. ■ **Gure Etxea elkarteko zuzendaritza**

Aiarrei deialdia

25 urte egingo ditu KARKARAK datorren ekainean, Sanpedroetan. Egun handia da guretzat eta aiara eta oriotarrekin elkarbanatu nahi dugu. Horretan, Aiako ospakizunak antolatzeko bilera irekia egingo dugu otsailaren 12a, 19:00etan, kultur etxean. ■ **Karkara taldea**

ZORITXARRAKI

Egilerik gabe

Bukatu dira Gaboneko eta alboko zuloko lanak. Lurra gustatu ala ez, argitsuago geratu da behinik behin. Dotoreago ere bai, pareteko koadroek bizia ematen diote-eta. Bina jarri dituzte zulo bakoitzean; alde banatan, Arrantzale eta Eusko Gudari kaleetatik argazki ederrok miresteke.

Norbaitek argazki-kameraren botoiari eman diolako daude argazkiok. *Klik.* Hark izandako irudimena eta abilezia ahaztuta geratu dira. Jarri egin behar da egilea.

JAIO TAKOAK

■ Miren Maiz San Sebastian, Orion, urtarrilaren 2lean.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**

EZKONDUTAKOAK

■ Ez da ezkontzarik egon.

HILDAKOAK

■ Nati Etxezarreta Zabala, Orion, urtarrilaren 23an. 89 urte.

■ Ignazio Sarasua Aldaz, Orion, urtarrilaren 22an. 84 urte.

■ Julia Agirre Ezkurra, Orion, urtarrilaren 13an. 87 urte.

■ Mari Karmen Manzisidor Agirresarobe, Orion, urtarrilaren 6an. 77 urte.

■ Juana Iruretagoiena Iturza-eta, Aian, abenduaren 28an. 88 urte.

■ Vicente Zinkunegi Beristain, Orion, abenduaren 25ean. 87 urte.

■ Felix Ortega Intxauspe, Orion, abenduaren 24an. 86 urte.



URTARRILEKO KRONIKA



Haize berriak urte berrirako

Ikurriña eta Espainiako bandera. Elkarren alboan egon beharko dute Aiako udaletxeko atarian. KARKARA

Ekin diogu XXI. mendeko 14. urteari. Ona izango dugu, seguru. Traineruko 14 arraunlariak lehenengo estropada irabaziz hasi dute urtea. Jorge Oteizak ere 14 apostolu jarri zituen ohiko 12ren lekuan. Aurtengertuko intxaurrak ere 14 izango dira, urrutikoak bezala.

Hego haize eta ero haize. Ekialdeko basamortutik fresko bila etorriko ziren Hiru Erregeak eta han baino epelagoa izan giroa hemen! Olentzerok, aldiz, ura goi eta behe izan zituen lagun opariak etxez etxe banatzeko. Eguraldiak ez daki berdintasunaz.

Berdinak ez berak, hobari berak, izango dituzte azkenean Danbolin Musika Eskolako ikasle aiarrek. Orioko eta Aiako Udalaren arteko ezberdintasunak legeak konponduta, Orioko Udalak bere kargu hartu ditu Olaskoegia eta Santio Erreka auzoetako bizilagun musikazaleen hobariak.

Konponketetan gogor ibili da Orioko Udala urte hasieran. Itsaspe eta Antilla hondartza lotzen dituen bidea prest laga dute mendizaleentzako. Izan ere, orain denboralea orain eguzkia izan duguzeruko jaun eta jabe ilbeltzean ere. Euri zaparrada mardulak bidali dizkigute Galiziatik. *Moitas grazas.*

Hurrena lasaiago egin putz ekialdera; eskertuko dugu.


Martin Garitano ere ekarri du haizeak Oriora. Herria gertuagotik ikusi eta herritarrekin biltzeko hitzordua eginak ditu. KARKARA inprentan izango da ordurako.

Haizeari aurre egiteko osasuntsu egon beharko otsailera begira! Aian, behinik behin, aritu dira gorputza indartzen. Bizkarra zaildu dute aurrea sokatiran; paparra eta besoak gero ingude eta lasto fardoekin. Gorputza alde batera utzita, arimagoxatzen saiatu nahi dute orain, eta Espainiako bandera eta Euskal Herriko Ikurriña, biak, nola uztartu jakin nahian herritarren proposamenak jasotzeari ekin diote.

Badator otsaila, San Blas eta Santa Eske, eskean aritzeari utzi eta KARKARAN idazteko grina zabalduko balitz bitartean... beso zabalik hartuko ditugu.

14aren atzetik etorriko da 15a ere otsailean. Euskal Herriko mus txapelketa eta traineru jaitsiera hartuko ditu Oriok. Etxeberria patroiazen azken hamarrek aurreikusten dut: *enbido ez, hordago! Hordago denera mutilak! Hordago, hordago, gurea da-eta! Hurrengo estropada Kariben dugu!*

LORE BERSALUZE



Aiako ala Orioko Udalak ordaindu behar du Danbolin musika eskolako ikasle aiarren hobaria?



“Asko aldatu dira gauzak txikia nintzenetik hona”

Logikoa iruditzen zait bai Aiako-ak haserretzea, eta baita Orioko Udalak oriotarrei bakarrik lagundu nahi izatea. Herri bakoitzak diru kopuru bat jasotzen du gastuetarako, eta udal bakoitzaren esku dago hori nola kudeatu. Zentzuzkoa iruditzen zait dirua bere herriko biztanleei laguntzeko erabiltzea. Baina, aldi berean, normala ikusten dut Aiakoak kexatzea. Onuragarria den hori kentzen digutenean kexatu egiten gara; aldaketak okerrera badira, txarrak iruditzen baitzaizkigu. Logikoa iruditzen zait, beraz, bakoitzak bere interesak defendatzea, nahiz eta batzuetan hain defendagarriak ez izan.

Eneka Guenetxea

Ingeniaria



“Gatazka politiko honetako txotxongiloak gara”

O rion egiten dugu bizitza, baina zergak, aldiz, ez ditugu bertan uzten; eta Olaskoegian, kontrari, zergak uzten ditugu, baina bizitza ez dugu bertan egiten. Hortaz, ez batak eta ez besteak ez du gure ardura hartu nahi.

17 urtetan era batera funtzionatu du beti kontu honek, eta orain, Aiako eta Orioko alkatetzan alderdi politiko ezberdinak daudenean etorri dira tira-birak. Gatazka politiko honetan txotxongiloak sentitzen gara. Alderdi politiko berak egongo balira bi herrietan, gauzak orain arte bezala segiko luke edota konponbidea errazago bilatuko lukete.

Leire Vitoria

Irakaslea



“Guk ez ditugu zertan ordaindu besteen hobariak”

N ire iritzia da Aiako Udalak bere zatia ordaindu beharko lukeela. Gu Orion bizi gara eta geure zergak hemengo Udalarari ordaintzen dizkiogu. Ba egin dezatela gauza bera Aian; berdin-berdin.

Oriotarrok ez dugu laguntzarik jasotzen Aiako Udalaren partetik. Hala ere, iruditzen zait gai hau ez litzakeela Danbolin musika eskolaren arloan itxi behar, kiroldegira eta beste hainbat udal zerbitzuetara zabaldu beharko litzatekeela. Ondo dago Udalek herritarrak laguntzea, ezinbestekoa iruditzen zait, baina hobe bakoitzak bere herrian, ezta? Guk ez ditugu zertan ordaindu beste herritakoen hobariak.

Fatimata Mbaye

Sukaldaria



Zarautz

Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa

> Hileta zerbitzu orokorrak

> Zerbitzu iraunkorra



Harrespil

Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

ENORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA
-komertzial instalazioak -beira bikoitza
-segurtasun beirak -dutxa-itxiturak eta irristailuak
-ispiluak -barandak -kristal mota guztiak...
Oria Elorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ARISTERRAZU
jatetxea

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

zkue
Tf: 943 13 04 38

Kiviklaudenta - Uuec arropa

argine.

www.lincoset.com/argine

Teel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN



AIRDATTA models

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

2GURPIL

Buzosulde 2 - 8 - 20810 Orreaga (Gipuzkoa)


☎ 943 035 200 🌐 www.2gurpil.com ✉ 2gurpilgnc@gmail.com

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta enremintak
fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

bodegasERRASTI, S. L.

Eskaiderako banatzailea
Zudugarsi, Geroziako biakodua,
Jagares, ardo goren nafarra.
Bodegas Garbur: Señorio de Laurizán
Garbur eta Arlandegia,
Arabar Errastiaren ardokak

Eskanabel 48 0610 • 9410111 • 9410112 • Espainia, Euzkadi, Gernika-Lexor



Igo zaitez haize berrietara!

Galerna I

943890416 - 677149934
galerna1orio@hotmail.com

ARMENDIA
INMOBILIARIA - AHOZKURTZA - AGESURLAK
Ibel Ordo: 1
Tel.: 943 834 468 - Fax: 943 32 941

**ZABALKI
PROBATU
SZAZU!**

PIZZERIA



KALETA

ARANYTÁLLAS KALETA, 10
TELEFONOK: 945 34 59 46

HAIZE & BERRI
 tel. 0939-960022-960023
 Piatzi Berriakal malk.
 Irte arak,
 hartu argak,
 gazakak,
 gureku zureku...
 eta abere arakakakak zurekuak!
 (Musikaz lagunduta)

libe
dietetika
elkadura aholkularitza

eusko guzariak 35 p. ORIO
1 euroa (buzantze gabea)

943 53 64 94 - 677 23 86 56
libe@mendak9.net.com



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TELLO - 943.572083
FAX - 943.571100
Lecorak@hbk.net.es

ENES ASKO O
IRATONTZI
30910 ORRI



Mendiz mendi, pausoz pauso, 36 urte Talai Mendiren tontorrean

Batek ezin du mendi gailurrean betiko egon; igo bezala jaitsi behar izaten du. **Dani Barrenetxea eta Mila Olideni** ere Talai Menditik beherako bidea hartzeko garaia iritsi zaie. Aldaketa garaia da Orioko mendizaleen elkartean.

TESTUA: LORE BERASALUZE**ARGAZKIAK: A. ABAD ETA KARKARA**

6 5 urte egingo ditu aurten Orioko mendizaleen elkarteak, sortzez Kukuarri izenarekin bataiatu (*Sociedad Montañeros de Orio* izenez inskribatu bazuten ere) eta gaur egun Talai Mendiz ezagutzen dugunak. Orioko mendirik maitatuenetarikoenaren babesean, makina bat istorio kontatuko lituzke elkarteak ahorik balu!

Mendiarekiko maitasunak elkartuta, giro onean goi aldeko arnas garbiak eta urak beherako bidea hartzean ateratako oihu goxo eta freskagarriak erakarrita, txango asko egin dituzte Orioko mendizaleek elkarrekin horrenbeste urtean. Urteen poderioz, Kukuarriko gurutzea jarritz geroztik, mendiarekin lotutako jardunez gain, bestelako hainbat ekintza ere hartu ditu bere gain Talai Mendik: 700 inguru liburu ko liburutegia -60. hamarkadan-; euskal kulturari eta jendarteari buruzko hitzaldiak, musika emanaldiak...; Zarauzko eta Orioko hondartzetan aritzen zen Kukuarri futbol taldea; pintura eta literatura lehiaketak; Hiru Errege Magoen ongietorria, kabalgata -70. hamarkadan hasita-, kantu eta jaiotza lehiaketa eta helduen dantza taldea -1999az geroztik-.

Taldearen gidaritzak ordea, esku gutxi ezagutu ditu. Jose Mari Illarramendiren eta Eusebio Lasarteren ondoren, Daniel Barrenetxea eta Mila Oliden izan ditu Talai Mendik buru 36 urte luzez. Mendian bezala baina, bizitzako errekek nora bidez aldatu behar izan du bere leku bila eta 2013ko bukaeraz geroztik zuzendaritza talde berria du Talai Mendik.

Omenaldia

Izerdi, malko, irribarre eta algara asko eskaini dizkiote Olidenek eta Barrenetxeak elkarteari eta tontorrera igota, beherako bide lasaia hartu dute biek elkarrekin. Atzera begiratu eta igoerako maldak gogoan, aldapa horietan lagundu duten jendea dute bidelagun jaitsieran. Emandakoaren ordainetan jaso dute biek urte hasieran herriko mendizaleen omenaldia.

Orioko kaleetan barna, gauaren iluna argitu zieten biei lagunek elkargunerako bidea zuzien argiekin betez. Aurrekua eskaini zieten ondoren Balea elkartearen alboan. Emozioz betetako uneak izan ziren bertaratutakoentzat. Besarkada beroen ostean, Baleara sartu ziren mendiko makilez egindako tunelaren azpitik barrena.

Festa giroak hartu zuen elkartea. Sabela berdinduta kantuan eta dantzari ziren asko eta asko. 110 adiskide teilatu beraren azpian, Daniri eta Milari eskerrak emateko.

Bizitako guztia betiko gordeta

1978. urtean hartu zuten Barrenetxeak eta Olidenek Talai Mendiren gidaritza, beren koadrilaren babesean. Orduz gero asko aldatu dira taldearen jarduna eta mendiarekiko ikuspuntua. Kultur elkarteak herriko eskaintzan parte hartzen hasi zirenetik mendizaleen elkartearnak behera egin du urteen poderioz. Zenbait ekimeni eusten diote oraindik ere, baina batez ere mendira begira jarrita egon dira. Dena den, mendiko irteerak ere gorabeheratsuak izan dira azken urte-



“Emandakoaren ordainetan herriko mendizaleen omenaldia jaso zuten Dani Barrenetxeak eta Mila Olidenek Errege Bezperan”

“Zuzendaritza talde berria du Talai Mendik... Elkarteko ki-deek hala erabakita, Mikal Etxeberria izango da Talai Mendiko presidente”



otan. *Gipuzkoako Bira egin genuenean jende pila gerturatu zen gugana. Horrenbeste espero ez eta gainditu egin gintuen egoerak*- dio Barrenetxeak. Baina Barrenetxeak gogoan du mendira gozatzerako joaten zirenekoa, hango eta hemengo parajeak ezagutzera. Gaur egun, aldiz, erlojuaren kontrako kirol proba gisa ikusten eta ulertzen du askok eta askok mendia bere ustez. Bi ikuspuntu elkarren aurka talka egiten ari dira.

Kontuak kontu, Talai Mendiko kide izaten jarraituko dute biek, distantziatik baina gertu.

Esku aldaketa

Elkarteko kideek hala erabakita, Mikal Etxeberría izango da Talai Mendiko presidente. Klaudio anaia du alboan, idazkari. Orain arte bezala, Mari Karmen Olidenek jarraituko du diruzain, eta bokalak, berriz, Antonio Abad eta Iban Osa dira.

Elkartea kudeatzeko era aldatu egin dute Talai Mendiko kideek; elkarlanean aritu nahi dute aurrerantzean. Horrela bada, ardurak ere banatu egin dituzte: Antonio Abad, Luis Lizarralde, Joxemanuel Urkizu eta Joxemari Lizaso arituko dira helduentzako mendi irteerak antolatzen. Pirinioetarako irteera, berriz, Ibai Alkortak landuko du. Dena den, taldeak irekiak dira eta interesa eta gogoia duten edonor hartzeko prest daude.

Federatzea nahitaezkoa izango da Talai Mendirekin mendian ibiltzeko. Horren harira, federatzearen garrantzia azpimarratu nahi du Etxeberriak.

2014KO IRTEERAK

Urtarrilaren 19an egin zuen Talai Mendik 2014ko estreinako irteera: Biriatu inguruetan ibili ziren 28 lagun. Urte osorako egutegia osatuta dute dagoneko gainera. 18 irteera antolatu dituzte denera: Albako harriira joango dira otsailaren 16an, Egileorretik Salinas de Oro-ra martxoaren 9an; Urederrera apirilaren 13an; Orio-Arantzazu apirilaren 17an; Andatzara maiatzaren 4an; Beriaindik San Donatora maiatzaren 11n; Pirinioetara asteburu berean; Kukuarri eguna maiatzaren 25ean; Pagoetara ekainaren 1ean; Irubelaskoara ekainaren 15ean, Arroila jaitziera egitera ekainaren 21ean eta 22an; Sierra Salbadara uztailaren 20an; Saioara irailaren 21ean; eskalatzera iraileko 3. en edo 4. en astebukaeran; Iratira urriaren 19an; Artikutzara azaroaren 16an; eta Babarrun jana abenduaren 14an.

Norberak bakarrik egin ezin dituen irteerak antolatu dituzte aurtengoan. Taldean joatearen garrantzia azpimarratu nahi izan dute Antonio Abad eta Luis Lizarraldeek. *Geografia ezagutu eta ondo pasatzera goaz mendira; elkarbanatzeko aitzakia da mendia.* Dena den, autobusak bete egin behar dituzte irteera errentagarria izateko eta mendira animatzeko deia egin nahi dute lerrootatik.



Eli Lasa

Denborak dakarren aldaketa

Nire partez, bihotzez eskerrak eman nahi nizkizueke nire idazteko eskaerari baietz erantzun duzuen guztioi. Asko eta asko izan zarete urte hauetan eta benetan estimatu dut zuen ahalegina. Segi KARKARAREKIN elkarlanean!

Liburutegi zaharrean –orain haurreskola dagoen tokian kokatuta zegoena– lanean ari nintze-nean Oriotik bisita bat jaso nuen. Han aldizkari bat ateratzen zutela hilean behin eta ea aiarrak animatuko ote ginen bertan parte hartzera. Eta dena euskaraz zen! Hori ez zen ohikoa orain dela 25 urte, orain aldizkari eta egunkari bat baino gehiago hala argitaratzen baldin badira ere.

Pasadizo ugari izan dira urte horietan. Beharbada aldaketa handienetako bat teknologia bera izan da. Hasiera haieran, KARKARAKO bulegorik ere ez zen, eta, zerbait bidali behar banien orduz kanpo –sarritan gertatzen zena, nire lanetik atera eta gero joaten bainintzen edo asteburutan besteladaletxe atzean zegoen postontzietan uzten nuen. Eta bitan behintzat susto ederra eraman nuen KARKARATik deitu zidatenean esanez ez zegoela ezer; norbaitek *grazia* egin nahian atera eta jakin ezazu non botako zituen! Orduan artikuluak eta elkarrizketak idazteko makinan egiten ziren, fotokopiagailua ere ez zen gaur egun bezain arrunta eta, okerre, argazkiak errebelatu egin behar izaten zirela, eta hori ere ez zen minutu gutxi batzuetan egiten.

Gauregun berriz, teknologiak ikaragarri laguntzen digu alde horretatik. Artikuluak edo bestelako idatziak ordenagailuan idazten dira; argazkiak digitalak dira; eta ordenagailukoa batetik bestera bidal daitezke, eta gero hori guztia egokitu egin daiteke komeni zaigun bezala. Gogoan dut oraindik oporretan nenbilenean e-mail bat jaso nuela esanez artikulua egin behar zuenak kale egin zuela eta nola idatzi nuen zerbait hegazkin batean Iguazúra iritsi bitartean, gero bertatik bidali ahal izateko korrika eta presaka. Egun hartan eskertu nuen teknologia, bai!

Gaiak hurbilekoak zirenez, euskaraz irakurtzeko ohitura-rik ez zutenek ere esku artean nahi izaten zuten aldizkaria, eta hori oso polita izan zen niretzat. Baita ere pixkanaka jendea bera hasi zela bere inguruan gertatutakoen berri ematen, denon artean aberasgarriagoa eginez.

Nire partez, bihotzez eskerrak eman nahi nizkizueke nire idazteko eskaerari baietz erantzun duzuen guztioi. Asko eta asko izan zarete urte hauetan eta benetan estimatu dut zuen ahalegina. Segi Karkararekin elkarlanean!

Zorterik onena KARKARARI bide berri honetan eta beste horrenbeste urte ospatu ditzala!



FISIOTERAPIA
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-GINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: KIRURDIURAK, TENDINITISAK, ZAINTEKATUAK, KONTRAKTURA, HANKA HANDITUAK, AKINOSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HERRUPURKO ARAZOAK, ARNAS BAIKOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOAK, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESTAPINGA, PILATES, ABDOMINALLIKO GIMNASIA HIPOPRESIONA (GAP)



Iñigo Fernandez Ostolaza

Argitu gabeko misterio bat

“Zergatik herri txiki batean, une jakin berean, hainbeste jende erabakitzen du etxearen kanpoaldea berritu behar dutela? Mikroklima kulturalak izaten dira han-hemen, moda lokalak, inbidiak...”



one Jakue – Santiago – bidea egiten, Aldapeko San Martin aterpetxean elkar ezagutu zuten bi atzeritar hurrengo egunean Eusko Gudari kalean ingelesez:

– Baina zenbat etxetako fatxadak ari diren berritzen herri honetan!

– Bai, bai. Lauzpabost etxe bai kale honetan bertan.

– Luxenburgotik abiatu nintzen ni bizikletaz, eta ez dut inon ikusi aldi berean hainbeste etxeren kanpoaldea berritzen ari den herririk.

– Ez, ez. Eta Euskal Herrian bertan ere ez, e! Baiona, Hondarribia, Oiartzun eta abar egin ditut nik oinez, eta ez dut halakorik ikusi... Hemen akaso Udalak behartuko zituen?

– Denak?... Bloke hau gris eta gorria, bestea zuribeltza, ba koitza material batekoa... Ez dirudi Udala gainean dutenik.

– Agian hotza sartzen zitzaizen etxeetara? Hezetasuna?... Auskalo. Zahartu egingo zitzaizkien fatxadak...

– Hotzagatik etxe kanpoalde osoa berritu? Gainera, ez ziren etxe guztiak une berean kaxkartuko, ezta?

– Ba, lan horiek ez dira merkeak izango, e! Diru-laguntzak eman ditu akaso Udalak?

– Hala ere, bizilagunek diru dezente jarri behar, seguru.

– Herritar askok dirua jarri nahi izan duela ematen du ba, bloke oso baten kanpoaldea berritzeko bizilagun gehien adostasuna beharko baita, ezta?...

– Kar kar kar. Zenbat eta buelta gehiago eman, orduan eta misterio handiagoa iruditzen zait.

– Imaginatu, lan horiek egin nahi ez, eta gogoz kontra dirutza ordaintzen ariko diren bizilagun koitaduak...

– A zer misterio. Zergatik erabakitzen du herri txiki batean, une jakin berean, hainbeste jende etxearen kanpoaldea berritu behar dutela? Mikroklima kulturalak izaten dira han-hemen, moda lokalak, inbidiak...

– ...

– Itxuragatik egingo zuten?

– Ez dut uste. Niri esan zidaten euskaldunak oso autentikoak direla, ez diotela garrantzia handirik ematen kanpo itxurari.

– Bai zera! Europarrak dira hauek ere, gu bezalaxe. Eta ez zuten arrazoi praktikoengatik bakarrik egingo. Auskalo. Beharbada kanpo itxuragatik egin dute batez ere...

– Egia esan, hainbesteko beharra etxeen kanpoalde osoa berritzeko... Harrigarria da benetan.

– Krisi garaian, itxura eman behintzat? Dirua kanpo itxurari dedikatu?... Interesgarria litzateke jakitea herri honetan zein negozio jaitsi diren gehiago krisi garaiotan, ilea-paindegia ala janari dendak?

– Misterioa argitu gabe joango gara. Done Jakue bidearen misterioak... Ez zait herri xelebre hau azkar ahaztuko.

– Hauek bai behar dutela interpretazio zentro bat beren burua ezagutzeko!

– Puffff, Goiko Kaleko interpretazio zentro horrena ere...



Xabier Sukia

Muñagorrik ziona bere proklamian

Lehen Juankarlistada pasa dugu. Ez al gara bigarreanean eroriko. Ez al dugu benetan garrantzia duena ahaztuko? Ez al ditugu lehengo fuero zaharrak ahaztuko? Noizbait izan ginen estatuaren ogi papurrak ziren fueroak

Moila bazter honetan ari naiz irakurtzen *Muñagorrik ziona bere proklamian...* Muñagorrik Lehen Gerra Karlista betebetan Bakea eta foruak mugimendua sortu zuen gerra latz hura eteteko asmo-tan.

Benito Lertxundiren ahotsa entzunez koskegin dit jakin minak. Egin ditut gure historia ulertzeko ahaleginak eta irakurri ditut Karlistadetako orrialde ozpinak eta Espainiaren zapaltzeko grinak...

Arazoa omen zen zein jarri Espainiako tronuan... Isabel ala Karlos. Karlos ala Isabel. Eta testuinguru hartan sortu omen Karlistadak. Eta ze ajola ote zitzairen euskaldunei nor egongo zen Espainiako tronuan?

Irakurri dut Karlistadak ez zirela izan euskaldunak espainolen kontra. Baziren euskaldun karlistak eta liberalak. Espainiar karlistak eta liberalak. Bandoz aldatu zutenak ere bai... karliberalak edo liberkarlistak nahi baduzue. A ze potajea. Jainkoaren eta Foruen aldekoak bi aldeetan zeudela ere irakurri dut. Baina hala ere euskaldunak euskaldunen kontra Espainiaren mesedetan.

Kantuak dio...*gerrak hondatzen gaitu bosgarren urtian...*, luzeegi egiten ari zitzairen gerra. Irakurri dut Muñagorri liberala zela eta gerra hura eteten ahalegindu zela kosta ala kosta. Batzuek etsaitzat izan zuten, beste batzuek, aldiz, laguntzat.

Irakurri dut ahalegin horren fruitu ere izan zela Bergarako besarkada. Bi espainiarren arteko besarkada. Maroto, Espainiako militar Karlistak, Espartero Espainiako beste militar liberalari emandakoa. Eta euskaldunak begira. Batzuek irabazi egin zutelakoan... eta denborak erakutsi du euskaldunek galdu zutela. Izan liberak ala karlista. Denak galtzaile.

Ze ajola ote zitzairen Isabel izan ala Karlos izan Espainiako tronuan? Ze axola ote zaigu gaur Juan Karlos izan ala Felipe izan?

Lehen Juankarlistada pasa dugu. Ez al gara bigarreanean eroriko? Ez al dugu benetan garrantzia duena ahaztuko? Ez al ditugu lehengo foru zaharrak ahaztuko? Noizbait izan ginen estatuaren ogi papurrak ziren *fueroak*. Muñagorriren ahaleginak emaitza txarrak eman zituen. Baina orduko lelo zaharrak balio lezake garai berrietarako. *Bakea eta foruak*. Eta leloa erabat gaurkotuta... Bakea eta independentzia.

OREKA
FISIOTERAPIA

943 13 35 37

TENDINITISAK
LUMBALGIAK
ARTROSIA
ZEPALEAK ...

...
MASAJE TERAPEUTIKOA
BIOTOSAK, AKUPUNTURA
ESKUTZKO TERAPIA
OSTEOPATIA

ANILLOKATUA, 25 JULIO

He apaindegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat.

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

Han eta hemen, gehiago edo gutxiago, elkarlana behar da



Onetsine Arrizabalaga

Hamahiru zenbakiari badio jendeak halako ezinikusia. Pasa den urteak asko eta askori berri txar eta denbora zailak ekarri dizkio. Urte berrian sartu gara, eta ziklo berri bati ekin diogu.

KARKARAK ere ziklo berria hasi du, 25. urteurrena datorrelarik, hilabetekari izatera pasaz. Aro berri honekin batera atal berriak ekarri dituzte eta hona hemen gure soka-tirako lehenengo hitzak. Ez dakizuenontzat, ikerlaria naiz eta jada bi urte daramatzat Alemanian eta Darmstadtetik ariko naiz atal honetakoak idazten.

“Festak eta abar antolatzen dituzte hemen -Alemanian-, baina ez dut horko auzolana ikusten”

13.a ez dela urte erraza izan aipatu berri dut. Negua elur dezenterekin etorri zen eta gero ibaiak hazi eta uholdeen argazkiak ikusi izana gogoan dut. Euriak bukaerara arte lagundu gaitu, Mari Domingi eta Olentzeroren etorrera ia-ia zapuzteraino! Baina ez zen hala izan, eta urtero bezala, haurren ilusio aurpegiak ikusteak barruraino bete ninduen. Errege egunean ez nintzen han, baina ziur danbor eta pandero erritmoen artean Erregeei ere etorrera polita egin zietela. Hauek eta beste hainbat herriko ekintza elkarlanean eta boluntarioen lan izugarria gabe, ez lirake aurrera aterako.

Horrelako ekintza xume baina esanguratsuak asko botatzen ditut faltan. Hemen festak eta abar antolatzen dituzte, baina ez dut horko auzolana ikusten, agian hiri handiagoa delako edo, ez zait inguruan boluntario lana egiten duenik tokatu. Aurten badator festa handia Oriora, eta urriaren 5ean bertan, eta aurretik kooperatibista eta bestelako lagunen elkarlana oso garrantzitsua izango da!

Ari ari ari, Itzi, tira sokari!



Itziar Urretabizkaia

Ba boluntario lanari helduko diot dudarik gabe honen inguruan hitz batzuk idazteko. Ez zait harrigarria iruditzen Onetsine zure inguruan horrelako ekintza gutxi egotea beste kultura eta egoera sozial batez inguratutik baitzaude hau irakurtzen ari zaren honetan. Arratoiez gobernatutako Madril usteldu honetatik nabil ni honako hau idazten. Hiritarengan presioak, debekuek, multek, arrazoigabeko atxilotek eta gainerako astakeriek denboran atzeraka eramantzen gaituzte, egutegian orriak kendu beharrean bata bestearen gainean jarriko balira bezala. Eta jendea haserre dago, haserre gaude eta horrek indartsu egiten gaitu. Horregatik, gero eta jende gehiago da auzo elkarreetan eta boluntario erara proiektu berriak aurrera ateratzen ari dena. Hor gaudela esateko, ez garela holograma bat.

“Jendea haserre dago, haserre gaude eta horrek indartsu egiten gaitu... ez gara holograma bat”

Baina nahiz eta ekintza ezberdin horiek aurrera eramateko motorra kasu batzuetan hori izan, helburua gehienetan askoz xumeagoa da: ondo pasatzea, antolakuntzan edota ikusle gisa parte hartuz. Azken finean *errealitate propio* txikiak eraikitzean datza. Berdin dio liburuak trukatzeko azoka bat izan, antzezlan multikulturala, bidegorri bat aldarrikatzeko desfilea edota Olentzeroren etorrera.

Pozgarria da eta harro sentitu beharko genuke Orio bezalako herri txiki batean hainbeste gogorekin egin diren ekitaldiez. Herria bizirik dagoen seinale. Baina ziur herriko Gabonetako emanaldietan parte hartu dutenak gainerakoetan ere hor ibili edo ibiliko direla eta jende gehiagoren kolaborazioa gustura eskertuko luketela. Ezin biok batera ozenago esan...

“Erabaki nuen filmak egiten hasi nahi nuela, eta margotzeari utzi”

Ainize Sarasola

Arte Ederretan lizentziatua

Ainize 2013-2014ko Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako *Artista Berrien Programan* hautatutako zazpi artistetako bat izan da. Berlinera bueltatu berri da, Gabonak etxean pasata.

R.UZKUDUN

Koldo Mitxelena Kulturunean bere lana erakusgai egon da abenduan. Erakusketaz gain, bere film laburra eman zuten. Lehenengo laburmetraia du eta *Tarot Night* izena du.

Zer moduzko harrera izan du film laburrak?

Ona erakutsi dudana lekuetan, baina beno, ez da asko bukatu dudala, beraz ez dut denbora handiegirik izan leku askotan erakusteko. Orain hainbat festibalean aurkeztea da nire intentzioa eta, beno, ikusiko dut ea zer harrera duen.

Noiz hasi zinen ikus entzunezkoak lantzen?

Unibertsitatean edizio programak erabiltzen ikasi nuen, baina ez asko egia esan, zenbait gauza grabatu nituen baina ez nuen fundamentuzko ezer egin; beraz, orain hasi naizela esan nezake. Gauza asko ikasi ditut nire kontura filma egiten ari nintzela, zenbait programa erabiltzen, formatuak...



Fanzineak ere egiten ditu Ainizek. A.SARASOLA

Baina oso gustura jardun naiz lanean, filmak egitea da-eta beti nahi izan dudana.

Zer adierazi nahi izan duzu film laburrekin?

Kar, kar...galdera hori zail samarra da erantzuten. Istorio narratibo bat denez bada pentsatzen dut zerbait kontatzen dela bertan. Istorio narratibo bat, ez oso tipikoa kontatzeko moduan, agian, ikuslearentzat hutsune eta aldaketa asko daudelako, baina bai hala da. Nire buruan behintzat bai...

Inglesez da film laburra, baina euskara ere erabili duzu.

Bai nik hemen, Berlinen, lagunekin asko hitz egiten dut ingelesez, beraz, grabatutako material ia dena ingelesez da. Eta gero, zati batean lagun bati testu bat euskaraz irakurtzeko eskatu nion. Testua nik neuk idatzia da. Eta euskaraz idatzi nuen, batetik, ondo zetorkiolako filmari, eta bestetik, garrantzitsua iruditzen zaidalako euskararen inguruan zerbait egitea nire lanarekin lotuta.

Erakusketak ere egin dituzu.

Bai orain arte hori da gehien egin dudana, erakusketak. Gehienbat pintura eta marrazkia lantzen ibili naiz orain arte. Unibertsitateko azken urtean hasi nintzen margotzen; marraztu, berriz, betidanik egin dudana zerbait da. Baina orain dela bi urte-edo, filmak egiten hasi nahi nuela erabaki nuen, eta margotzeari utzi nahi niola.

Dena den, nire lanak ikusi nahi dituenak sarean ditu zintzilik, adibidez, ainizeblog.blogspot.de/helbidean.





Babesle eta bazkideak goxatzeko irteera

Azken urteetako usadioari jarraituz, diru ekarpenak egiten dituzten babesle eta bazkide-laguntzaileentzako eguna antolatu du aurtengoa ere Orio Arraun Elkarteak urtarrilaren 12an. Eguna ondo hasteko, Arraunetxera egin zuten bisita. Karlos Argiñanoren K5 txakolindegira joan ziren ondoren. Han hamaiketakoarekin sabelak berdinduta, goiko argazkia atera zuten 2013ko denboraldian TKE Ligako traineruko mutilek lortutako banderekin. Hangoa bukatuta, Orioko Balea Elkartearen bildu ziren guztiak elkarrekin bazkaltzeko.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-rritakoa dela jarrita.

JOXEMARI ETA JOXE JULIAN OLASAGASTI

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO



IGLESIAS
SARRILAGILEAK

24 ORDUTU ZEBITZUA

Juñer Iglesias Fernández
637 723 308
iglesias@unilagileak.com
2010 Orio

ATRAK IPHEITZEN DITUGU
- SARRILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATRAK ETEKO MALOQUEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47



Urteroko bisita egin ziguten Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek. KARKARA



Txikienak Erregeei herrian barrenako txangoan laguntzen. KARKARA





Menditik barrena jaitsi zen Olentzero Aian eta balta Orion ere. EURANGA ETA KARKARA

Olentzero eta Erregeen oparia: argazki sorta

Txintxo antzera ibili gara gu ere aurtan itxura denez. Ikatz arrasto batzuez gain, erregalu eder-ederrak ekarri dizkigute Olentzerok eta Hiru Erregeek. A zer poza KARKARAREN bulegoan! Argazki pila ekarri dizkigute. Haien alboan, mezu bat ere bai: *elkarbanatu itzazue irudiok zuen familiako kideekin, maite zaituzten eta maite dituzuen horiekin*. Eta horixe egitera gatoz ba. KARKARAZALEEN eskura jarri ditugu Gabon festa hauek utzitako argazkiak. Argazki erreportaje honetan jaso ditugu horietako batzuk; sarean zintzilikatu ditugu den-denak. Gozatzeko!

ARGAZKI ERREPORTAJEA



Irri eta algara, primeran ibili ziren jolasean haurrak. KARKARA



Pedalei eragin eta eragin Gabonetako argiak piztu arte. KARKARA



Panderoa eta trikitia nagusi EHko Trikitilarien Egunean. KARKARA



San Silbestren. KARKARA



Dantzan eta Egan. KARKARA



Aiballo! Olentzero bizikletan. KARKARA



Haurren gozameneko festak

Jolaserako eta ondo pasatzeko egunak izaten dira gehienetan Gabonak. Etxeko txikien irribarre eta urduritasunak izaten dira han eta hemen nagusi. Musikaz eta dantzaz blaitzen dira; festa giroaz nagusitzen. Horrez gain, hala nahi duenak, kirolari eta kontsumo ardurasuari ere egin diezaioke tartea.



Batukada herria alaitzeko. IEGIGUREN



500 baietz! erronka jarrita, laguntzaile-kanpaina abiarazi dugu. KARKARA

Denetariko egunak

Ekimenez beteta etortzen zaizkigu urtero Gabonak: puzgarriak, musika emanaldia, gaztaina-jana, Gabon eskea, San Silbestre...; eta Gabonetako azoka eta Euskal Herriko trikitilarien eguna estreinakoz aurtien. Herritarren jardunari esker antolatu dira horietako asko eta asko; Udalen ekimenez beste batzuk. Jan-edan festa arintzeko gorputza mugitzeko aukerak behintzat izaten dira.



Danbolina gira eta buelta, gaztain erre goxoak. KARKARA



Saltoka-saltoka nabil ni gustura... KARKARA



Erregeentzako eskutitzak jaso zituen Bizarzurik. KARKARA



PUBLIZITATEA

LUXARBE
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denotarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

ardoak, urdaiak, gaztak, kontserbak, janari prestatuak

elxeraino eramaten ditugu

KIKV ARRI

943 83 09 84

alta Iertxundi, 36 ORIO

Joana Murgiondo
Aseguratu aginduz

C C I
CASA, CANTO, CANTO Y CANTO

Abeslari, 4-2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

ITZIAR
kirolak

Tel. 943 83 31 03

Maidor Arillaga Sarasola · 135. Kol. zerb.
Arantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

ninarri
POCLOGIA ZENTROA

Faroko bakailaia daukagu

ITSAS MENDI
gaitziak

Euzko Gudari 5 Tel. 943 24 67 74 Orio

aroztegia
MIRANDA
koka, larrak

Larria, ala, lilla, maldara...
Tel. 943 83 31 03

Itzazalea bidea, 1 4875 12 32 700 ZARAUZ

ODITZ

Arroztegia bidea, 1 4875 12 32 700 ZARAUZ

tel. 943 83 00 89

ITZALA
koka, larrak, maldara...

tel. 943 83 12 59

PATXI OLIDEN
Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripoli, odolki, txakarra, horiza, kokeak...

Euzko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

gizarte kutxa

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak:
-Arrain zopa
-Arrain eta haragi erreak

Euzko Gudari, 29 **ORIO** Tel.: 943 83 00 05/
Tel.: 943 13 25 32

Portu ERRETEGIA

Santo Eneka Auzua, 29
943 89 44 64
20820 AIA-ORIO

brutik biserio alden
Amalio erretak gurek mone

PERTSIANAK
A K O M A Z

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

kutxi
kafetegia
GOSARI GOKOAK

Arizaga 6, 20810 Orio
Tel. 943 13 15 17

KOLON TXIKI
elarrategia
jateak

Herriko Euzko Gudari, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44



50eko hamarkadan Aiatik desanexionatu eta Oriora pasatzekoa zen lur eremua zedarritzeko -beltzean- erabilitako mapa. ORIOKO UDAL ARTXIBOA

Aia-Orio, auzo-herrien muga lauso eta auziak(I)

Ibaia non bukatu eta itsasoa non hasten den esatea zaila da, **Aia eta Orioren arteko mugak** ere lausoak dira, Oria ibaian gora datorren lanbroak ezabatzen ditu. Trenez datorrenak, iristear dagoela, entzungo du: *Hurrengo geltokia: Aia-Orio*. Trenetik jaitsita, bertako askok ere ez du jakingo zehazki non dauden, Aian edo Orion. Nolanahi ere, Aia-Orion daude. Tren-geltokiak izen horixe du: Aia- Orio.

ERREPORTAJEA



Errioak lotzen eta bereizten ditu Aia eta Orio, Oriak egiten ditu zubi-lanak. ORIOKO UDAL ARTXIBOA

TESTUA: IÑAKI ITURAIN

ARGAZKIAK: ORIOKO UDAL ARTXIBOA

Bi herrion artean harreman estua egon da betidanik, gertutasun handikoa. KARKARA, hitz hauek plazaratzen dituen aldizkaria, Aiakoa eta Orikoa da. Orioko pilota txapelketan Orioko eta Aiako pilotazaleek bakarrik parte har dezakete. Literaturlehiaketa bi herrietarako antolatzen da. Orioko Karella kiroldegian tratamendu berezia dute aiarrek, Danbolin musika-eskolan ere bai, baita hondartzako aparkalekua ordaintzeko orduan ere; Aiako igerilekuan beste horrenbeste, oriotarrek. Orioko traineruak ia beti izan du bere tostetan Aiako mutilen bat edo beste. Arrauna aipatzen hasita: 2013an kadete mailan Espainiako txapelketa irabazi zuen bateleko lau arraunlarietatik hiru aiarrak ziren. Bi herriek apaiz bera dute: Unai Manterola... Gauza askok lotzen ditu bi herriak.

Universidad de Ayakoak eta ijitoak

Universidad de Aya du oso aspalditik erdarazko titulua Aiak. Unibertsitatearen aipamen hori adar jotzeko aukera polita izan dute oriotarrek aiarrentzat. Aiarrek kale-ume hitza erabili ohi dute horretarako, ohiko *ijito*arekin batera, edota Arraunetxeko zati bat ere Aiako lurretan eraikia dela esango diote Orioko arraun-zaleari.

Orioko jende askoren jatorria Aian dago, hango baserriren batean. Oriok bere historian eman dituen pertsona ezagun batzuk Aiako herriari dagozkion lurretan jaio edota bizi izandakoak dira: Inazio Sarasua patroia, Esteban Azkue plater-tiroko tiratzailea, Iñaki Lasa Orioko botikaria, Jose Arin enpresaria... Horiek denak Aia-Orion bizi ziren, Orioko plaza-tik 200 metrora, baina ofizialki Aiako lurretan. Eta haiek ez zuten zalantzarik batere esateko oriotarrak zirela.

Altxerriko kobazuloa, Altxerri jatetxea... Aiako lurretan daude. Baina Altxerri baserrian jatorria duten altxerritar batzuk oriotarrak dira –aurten bertan hil den Juanito Altxerri



“Erriotik Santiora eta Altxerrira bitarteko lur eremu horrek, batetik, lotu egiten ditu Aia eta Orio... baina bestetik, arazo eta auzi iturri ere izan da historian zehar”

“Orioko lurrak dira, itsasgoran eta marea bizian, errioko urak iristen diren lekutik hamar metrora artekoak”

patroia-. 2013ko Santioko festen programa zekarren eskuorrian jatetxe eta enpresen publizitatea zetorren, inguru horretakoena. Bakoitzaren telefonoa eta helbidea zekarren, non dauden kokatuta. Batzuen herria, haxe: Aia-Orio. Hauena: Errota, Portu eta Satxota jatetxeak, Indo garraioak, Amilibia untziolak, Azkue, Manterola eta Ondo zabal taillerak eta Etxeberri aroztegia. Denak dira Aia-Oriokoak.

Identitate arazoak

Erriorearen ondoan bizi diren Aia aldeko biztanle batzuek badute identitate-arazo bat: haien nortasun-agirian jartzen du *herria: Aia*. Hor arazo bat egon da eta dago biztanle horietako zenbaitentzat, gutxienez administratiboa. Batzuek oso modu xeblean konpontzen dute: nahiz eta Aiako lurretan dagoen etxean bizi, Orio aldeko beste batean errolatzen dira.

Erriotik Santiora eta Altxerrira bitarteko lur eremu horrek, batetik, lotu egiten ditu Aia eta Orio, nolabait ere bien eremua delako; baina, bestetik, arazo eta auzi iturri ere izan da historian zehar, hainbat aldiz, eta halaxe segitzen du izaten batzuentzat gaur egun ere.

Lur eremu hori, udalentsat, bai Aiakoarentzat bai Oriokoarentzat, Aia da. Baina ez da horrela gertatzen erakunde guztientzat. Elizaren kasuan, eremu horretako biztanleak Orioko elizarako dira, Oriokoan egin ohi dituzte bizitzako eliz erritual garrantzizkoenak: bataioa, lehen jaunartzea, hileta... Postaria ere Orio aldekoa ibiltzen da. Orioko anbulatorkia jotzen dute medikuarenera...


Muga eta mugarriak

Ibaiak batu edo bereizi egiten ditu bi herriak? Haren izenak, Oriak, bi herriak batzen ditu: aurreneko bi hizkiak Oriorenak ditu -Or-, beste biak, Aiarenak -ia-.

Non dago bi herrien arteko muga? Non, mugarriak? Haie-tako bat zubiaren ondoan zegoen, tren geltoki zaharraren ondo-ondoan, geltoki berria egiteko bota zuten arte. Literaturak gauza askotarako balio du, besteak beste arazoak leuntzeko, edo ulertzen zailak diren gaiak hobeto aditzeko. Hori-xe egiten du ipuin honek:

Garai batean, Oriaren ezker aldeko baserrietako jendeak ez zekien seguru nongoak ziren, Aiakoak edo Oriokoak. Uste zuten akaso bietakoak zirela; baina paperetarako-eta erabaki beharra zegoen. Horretarako, modu bitxia asmatu zuten: lasterketa egingo zuten, Oriotik eta Aiatik aldi berean abiatuta, lasterkariak bat egiten zuten gunean ezarriko zuten bi herrien arteko mugarria. Oriokoak aldapa gora egin behar zuenez, hura zaldi gainean joango zen; aiarra, berriz, asto gainean. Entrenatzen-eta ibili ondoren, ailegatu zen probarako eguna. Eguerdian, itxafero batek eman zuen abiatzeko agindua. Zaldia Orioko plazatik ziztu bizian abiatu zen, baina zubia pasatuta estazio ondoko askan geratu zen ura edaten. Edan eta edan, aurreko egunetan ez baitzioten tantarik ere eman. Aiako plazatik abiatutako astoa, bitartean, geratu gabe, behe-erak zetorren, San Pedro eta Santiyotik barrena. Zaldiak, egarria aseta, abiatu nahi izan zuenerako, hantxe zen astoa, estazio ondoan, erriotik 25 metrora.

ELKARRIZKETA



1985eko apirilaren 8an ailegatu zen tren lehen aldiz Aia-Orioko geltokira eta Donostia aldetik egin zuen. ARTXIBOA

Literatura alde batera utzita, historiak dio zenbait aldiz epaia eman izan dela bi herrien arteko mugei dagokienez, eta epai horien arabera, Orioko lurrak dira, itsasgoran eta marea bizian, errioko urak iristen diren lekutik hamar metrora artekoak.

Elizarentzat Orio

Martzelino Agirresarobe *Torrotxo* Laurgaingo elizan bataiatu zuten (1941-12-01ean jaioa da). Oribarzarreko Torretxo baserrian 16 senide ziren; Martzelino seigarrena da. Ba, Martzelino eta haren aurrekoak Aiako Laurgaingo elizan bataiatuak dira denak. Baina haren ondoren jaio zirenak Orión bataiatu zituzten denak. Bitarte horretan gertatu zen Elizaren erabakia, 1942an, behe aldeko baserrietako jendea Orioko elizara aldatzeko, begi-bistako arrazoiengatik. Hauxe zion Martzelino Torrotxok: *hik ba al dakik zer zan orduan baten bat hiltzen zanean hura kajan sartuta Oribarzarretik Aiako kanposanturaino eramatea? bizkar gainean hartuta edo gurdi zahar batean jarrita, eraman egin behar zan hura gero haraino. Ez zan broma e! Oribarzar inguruko lur eremu horretatik Laurgainen bataiatutako azkena Arantxa Makazaga da, eta Orioko elizan bataiatutako lehenengoa, berriz, Jose Ramon Aizpurua.*


1937ko urtarrilaren leko data duen dokumentu batean, *El Jefe Local de la Junta Carlista de Guerra de Orio* Antonio Etzanizek sinatuta, 134 gizonezko osatutako zerrenda luze bat agertzen da. *Orioko Reketea* osatzen dutenak dira; gehienak, Oriokoak; 22, Aiakoak. Honela dio aiar horietako bakoitzari buruzko aipamenak: *Pertenece a Aya pero hace servicios en esta Villa por estar mas próximo*. Horrek esan nahi du Santioerreka, Altxerrierreka eta Oribarzar aldekoak direla 22 bizilagun horiek.

ZENBAKIA

1942

Urte. Urte horretan pasatu ziren Laurgaingo elizatik Oriokora, Oribarzar inguruko bizilagunak. Ordura arte jaiotakoak Laurgainen bataiatuak dira, handik aurrera hasi ziren Orioko elizan bataiatzen. Ez da zaila ulertzen zergatik: gertuago dago Orioko eliza Laurgaingoa baino; eta, batez ere, urreago Orioko kanposantua Aiakoa baino. Bestela, hildakoa ere Aiako kanposantura eraman behar izaten zuten, hilkutxan sartuta, eta orduan ez zen automobilerik, eta bideak ere hala-moduzkoak ziren.

“Aiako burdinoletan ekoiztutako produktuak erriotik berrera itsasorazen ziren. Eta eremu hartan eskumena Orioko Udalak zuenez, errio ertzean kokatutako lonjetan ezartzen zitzairen diru-zerga produktu haiei, oriotarren mesedetan”



Oriok eta Aiak historikoki izandako auzi askoren kokagunea. ARTXIBOA

ARRAUN KONTUAK ETA BESTE

Aiak bandera bat badu arraunean irabazia. Bateletan. Oribarzar baserriko lau mutilek irabazi zuten: Modesto eta Gregorio Makazaga anaiek eta Pedro eta Juan Aizpurua anaiek. 1934an izan zen, eta koadrila Aia-Orio izenean aurkeztu zen. Estropada jokatu eta irabazi arte ez zen inolako arazorik izan; baina, gero, zalan-tza sortu zitzairen: eta orain non utzi behar dugu bandera? Mutilak Oribarzarrekoak izanda, aiarak ziren; batela, arraunak eta tradizioa, berriz, Oriokoak. Bi herriek nahi zuten bandera. Azkenean, Aiakoek irabazi zuten: Aiako Udalak erosi egin zituen batela eta arraunak eta bandera eskuratu zuen, baita Aiako herriak ederki ospatu ere. 1946an, Orion bi arraunlari-koadrila osatu ziren; haietako bat Aia-aren izenean ibili zen, San Nicolás II traineruan. Gaur egun ere, aldapa behera arraunlari asko jaisten da Aiatik Orioko trainerura.

1980ko apirilaren 6an Altxerriko zubiaren ondoan atentatu odoltsu bat izan zen. Orioko Udalak ohar bat bidali zuen medioetara, prentsak atentatuaren berri esandako zerbait zuzentzeko, esanez atentatua ez zela Orion izan, Aian baizik.

Urtetan, kontrabandorako ere eremu egokia izan da Aia-Orio, ez baterako ez besterako edo bietarako den lur puska hori. Baita istorioak asmatzeko ere: Santioko bizilagun batek oraindik ere dio Santio garai batean Oriokoa izan zela eta apustu baten bidez pasatu zela Aiako izatera.

Auzi historikoak

Baina gorabehera hauek denak ez dira berriak. Historian zehar hainbat aldiz azaleratu dira bi herrion interes kontrajarriak, eta hainbat auzi juridiko-politiko izan dira. Zaharrenak XV. mendera eramaten gaitu; berriena XX. mendeko 50eko hamarkadakoa da.

XV. mendeko auzia

Conflictos de intereses en la economía marítima guipuzcoana. Siglos XVI-XVIII Xabier Alberdi historialari zarautarrak egindako doktore-tesi bikainean agertzen da XV. mendeko auzi haren berri:

1473an, Oria ibaiaren itsasoratze-eremuan Oriok bere alde zeuzkan eskubide guztiak, nabigazio, komertzio eta arrantzan, Oriok Aiako Unibertsitatearekin sinatutako kartaren arabera. Baina urte batzuk geroago, bai Aiako Udalak bai hango jauntxo batzuek zalantzan eta auzitan jarri zuten Orioren eskusibotasuna. Horren ondorioz, 1500ean bi udalerriek beste konpromiso bat sinatu zuten.

Garai hartan, komertzio-garraioari lotutako joan-etorrien trafikoa handia zen oso Oriako itsasadarrean. Trafiko horretan garrantzirik handienetakoa burdinez egindako itsas gaiek zuten (aingurak eta itsasontzien osagaiak). Aiako burdinoletan ekoiztutako produktuak erriotik barrena itsasoratzzen ziren. Eta eremu hartan eskumena Orioko Udalak zue- nez, errio ertzean kokatutako lonjetan ezartzen zitzairen diru-zerga produktu haiei, oriotarren mesedetan. Horren aurrean, Aia aldeko zenbait jauntxok lonja batzuk eraiki zituzten Santioko eta Altxerriko (Manterola-Ubegun) erreken inguruan, Aiako burdinoletan ekoiztutako produktuen zerga lonja haietan ordaintzeko, Oriara iritsi baino lehen. Geleta, Arratola, Amas eta Oribar dira dokumentuetan agertzen diren lonja berriak. Eta, jakina, horrek kalte nabarmena zerkarkien Orioko interesei. Horixe zen auziaren muina.

Arrazubiako renteria Portu baserrian

Dokumentuetako jatorrizko hitza, lonja horiek izendatzeko, da *rentería*. Lonja edo erreteria garrantzizkoena Arrazubiakoa izan zen, gaur egungo Portu baserria. Hark ekarri zituen Aiaren eta Orioren arteko auzirik korapilatsuenak. 1473an izan zen auzi horietako bat. Oriok berarentzat nahi zituen ibaiaren bi aldeak, eta inguruko ibaiadarrak eta padurak, marea bizienetan itsasgoran ura iristen zen guneetaraino. Aiak, berriz, berarentzat nahi zuen errioaren erdirainoko bere aldeko guztia. Zarauzko jaunak erabaki zuen auzia: Oriok zeukan errioaren bi aldeetan nasak eta lonjak ezarri eta errioko komertzio guztiaren gainera eskumen osoa; baina, era berean, Aiari aitortu zitzaion erriora jaisten ziren bi erreken gainera eskumena, eta inguru haietan bere lonjak ezartzekoa.

1500. urtean, berriro auzitan ziren; kasu hartan Donostia-ko hiriko Kontzejuak erabaki zuen auzia: berretsi egin zuen 1473an erabakitakoa, eta erantsi zuen Aiatik zetorren burdina Aiako lonjetan pisatzeko eskubidea zutela, Oriokoan deskargatzen ibili beharrik izan gabe, baina kargari zegokion zerga Orioko lonjan ordaindu beharko zutela.



Rikardo Uzkudun

Aldaketak dakarren denbora

Maiztasuna galduko dugu paperean, albiste kopurua, freskotasuna... baina ordainetan beste gauza batzuk irabaztea nahiko genuke. Albisteak, freskotasuna, argazkiak, bideoak... web gune berrirako lagako ditugu

Ez dago ezer irauten duenik, aldaketa bera ez bada Heraklito. Aristerrazuko erromeriagatik ez balitz, irauteko aldatu beharra besterik ez dagoela ere esango nuke, baina beno. Geratu bedi hor.

KARKARA aldatzen ari da, kanpotik eta barrutik. Orain dela urte eta erdi lan talde berriak ordezkatu zuen, guk *kariño*z deitzen diogun moduan, *dinosauroen* taldea. Kezka bera generabilen buruan, nola haiek hala guk: KARKARAK aldaketa beharra dauka!

Urte bete hausnarrean aritu ondoren, –ikus ezazue maiztzeke KARKARAREN 337 zenbakia–, 2014ko ilbeltzarekin dator aldaketa. Eskutan duzuen da KARKARA 2.0-ko lehenengo hilabetekaria.

Zer, pisu handiagoa al du? Ez diot 40 orrialdeengatik, bai-zik eta pisatu ezin den beste pisu horregatik baizik. Gure us-tez, azkenaldian, KARKARA arin xamarak irteten ziren, ez da-kit nork esan zuen bezala, komuneko eserialdi batean irakurtzeko modukoak. Maiztasuna galduko dugu paperean, albiste kopurua, freskotasuna... baina ordainetan beste gauza batzuk irabaztea nahiko genuke. Albisteak, freskotasuna, argazkiak, bideoak... web gune berrirako lagako ditugu. Uda-berrirako espero dugu *traineru* berria.

Eta nire honetan, asmatu ote dugu? Gustatuko al zaizkie, oriotarrei, aiarrei KARKARAREN kume berriak? Denborak erantzungo du, esaten da horrelakoetan. Ez dakit.

Dakidana da denbora pasatzen utzi gabe, erabakiak hartu, hartu beharra zeudela. Eta horrelakoetan dagoenak hartzen ditu erabakiak. Lasai, KARKARAN ez da Euskaltzaindiako denboralerik izan, haize aldaketa bat besterik ez, zia boga. Eta haizea aprobetxatzeko watioak behar ditugu, tira egingo duten oriotarrak eta aiarrak... *trainerua* olatu gainean joan dadin, eta ez gaitzan olatuak harrapatu!

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artakaria
finika administratzailea
gostaria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 66 40 29 Fax 943 63 54 98 itsasadara@itsasadara.com
Itzi Ondo 4, behea. 27510 Orio

tailer mekanikoa

AUTO-LAN
C. B.



urrutira joan gabe
talde berria
zure zerbitzura

Pelotari kalea, 5 ORIO

943 83 00 34

XS

arkitekTura
herrikobarra 6. zerautz

eraikuntza zerbitzuak
errehabilitazioak
obrak
proiektuak
kostuak
ITE-ak
eraikinen mantentzea

Gorja Agirresarobe Lopezetegi

635 731 722

Nortasuna: nongotasuna eta nolakotasuna



Aitor Arregi

Nork galdetu izan didanean nongoa naizen, euskal herritarra naizela diot beti: hemen, Madrilén, Parisen eta Londresen, euskalduna naiz. Gertatu izan zait maiz galdera egin didan nak atzetik galdetzea: *Espainian dago, ezta?* Erantzuna ezezkoa izaten da, eta orduan gertatzen da: aurpegi edo begiratu arraro batez, *zuk nahi ala ez Espainiarrak zarete*. Ez ba, noski.

Euskara dut nortasun eta aberri; euskara ahoan, txapela buruan eta ibili munduan. Irakurleren batek pentsa dezake *noa ziaik hau XXI. mendian, komunikazioaren aro honetan, globalizazioarekin, denak, herri bat geranian?* Ba, mundu globalizatu honetan, nire nortasuna azaldu nahi dut: deitu nafar, deitu euskal herritar, edo *chikitistani*, baina beti euskaraz. Ez espainol eta ez frantsez. Euskara da bi nazio horietatik bereizten nauena, nire nortasuna neure hizkuntzak ematen baitit. Nik neure aberria nirekin daramat noan tokira; nire aberriak ez du mugarririk ezagutzen, nik zabalitzen baitut neurekin. Nire ondorengoei utziko diet nik jaso nuen bezala. Nire izatea da, nire nortasun agiria.

Baina, noski, gure txoko txiki honetan ere, zenbat buru, hainbat aburu, bada bere burua espainiartzat duenik; edo arraroagoa, *ni euskalduna naiz, baina espainiarra ere sentitzen naiz*, ole, ole, eta ole! Etxepeko bileretan zer gertatzen den ikusita, nola konpondu 3. solairuko abertzalea eta 1. goko espainiarra? Eta aldameneko *etxebizitzakoek?* Zer diote gure etxean konponketak egin nahi izateaz?

Galdera errazak erantzun zailekin, to! Galdeketa lagunak; egin dezagun galde. Galdera. Zer galdetu? Zeini zuzenduko zaio galdera? Eta garrantzitsuena nire us-tetan, erantzunak balioko al luke ezer aldatzeko? Zenbat galdera ditu gaur Euskal Herriak? Askok xamar oraindik. Balitu erdiak!

Inork ez zigun esan euskaldun izatia zein nekeza den, baina izan ezazu nortasuna eta izan zaitez euskaldun, ez Eneko?



Eneko Balerdi

Ahoa bete, gorputzak lekua bilatu eta bekainetako ileak ere harrotzen zaizkit honelako hitzekin topo egitean. Ondoren, ordea, interneteko *Etimologías de Chile* webguneko hitzen disezioak aztertzeke ohitura izaten dut eta halako gorputza duten hitzen esanahiak arnasten lagundu ohi didate bertan.

Nortasuna gainontzeko pertsonekin elkarbanatzen ditugun ezaugarriek bakarrik deskribatu omen dezaket. Nire ardura bakarrik ez dela jakitean lasaitzen naiz. Identitatea, *Identitas*, latinetik eratorria da eta *idem* hitza du erroan, berbera edo berdina adierazten duelarik. Berdinak edo berberak izateko, konparaziorako, gutxienez bi izan behar eta, beraz, nortasunaz ari garenean, ez gaude bakarrik. Orain ederra! Norbera nor den jakiteko besteak ulertu behar!

Euskarazko hitzaren konposaketa aztertzeke ere internetez baliatu naiz eta Santurtziko udal euskaltegiko apunte batzuekin egin dut topo; asko dituzte. Nor izenordea argi izanda, hara non, –tasuna atzizkiak emandako esanahaiak eta zehaztasunak: *cualidad abstracta positiva; también para designar enfermedades, que si bien no son algo positivo el que las padece no tiene culpa*. Ez da gurea beraz gure nortasunaren errua edo ardura, ez behintzat gurea bakarrik, baina, neurri batean, badugu horretan eraginik.

Nortasuna pairatu baina hobe nortasuna eraiki, *si bien se quiere que sea positivo*. Orain hemendik, bihar handik, ikasi honetatik eta irakatsi beste hartatik, baina jaiki eta nortasuna eraiki. *Si de cualidad abstracta, mejor, ya explicarás. Aunque probablemente así, también, enfermarás*.

Nor positiboa denean taldean *menos enfermarán*, beraz, errua edo ardura bat baino gehiagorena denez, positiboki eraiki norbere zein besteen nortasuna! Positiboki ulertu nobere zein besteen nortasuna, izan ere *el que la padece no tiene culpa*.

Kontzertu goxoa, bertso gordinak



Trikitira ohituta, gitarra du lagun oraingoan Tapiak. KEPA GONZALEZ

Kritika Joseba Tapiak

Musika, 'Tximela kapitaina' diskoa aurkeztu zuen Joseba Tapiak urtarrilaren 17 gauean, Orioko Kultur Etxean.


Aurkituko nuenari buruz deus asko jakin gabe azaldu nintzen urtarrilaren 17an Orioko kultur etxean. Banekien Joseba Tapiak bere disko berria aurkeztu behar zuela, eta banekien gitarrak behar zigula, esku-soinurik ez; beste ezer ez nekien.

Pozik sartu nintzen, lagun artean eta pintxo-poteo umoretsu baten ostean, baina kontzertua hasi orduko nire aldartea aldatu zen; kontzertua baino film bat ikusten ari nintzela iruditutik zitzaidan. Izan ere, Tximela kapitainaren-Luis Rezola-bertso gordinek Duesoko kartzela modu benetan gorrian deskribatzen dute, eta Joseba eta Luis Fernandezek-biolontxelotan-musikaz lagunduta azkar barneratu nintzen kartzelako egoera gogor hartan; zorriak han eta hemen, ikara, espazio falta, lagunak fusilamenduak... errepikatzen ziren behin eta berriz Josebaren ahots berezi horretatik.

Kontzertu ederra bai, goxoa, hunkigarria eta gure historia berri izateko modu bikaina.

JOSU GALDOS

Bederatzigarrenean ere dantzan eta kantuan




Dantza eta kantua uztartzen ditu Herribilek urtero. HARRIBIL

Kritika Herribil

Hainbat, Herribil dantza taldeak antolatuta 'Herribil' ikuskizuna eskaini zuten Orioko hainbat elkarreetako kideek abenduaren 27an.

Urteroko moduan, 2013ko Herribilen Gabonetako edizioan ere ez zen dantza eta kanturik falta izan eta ikus-entzuleak oso gustura irten ziren Karela kiroldegitik. Ander Beldarrain eta Mirari Arriola aurkezteko eskutik herriko hainbat talderen lanaz gozatu ahal izan zuten bertaratutakoek. Ohiko moduan, Herribil eta Talai-mendikoak aritu ziren dantzan, Salatxokoak kantuan eta musika-eskolako irakasle eta ikasleak instrumentuak jotzen. Horiez gain, Uhats taldeak ere pare bat kantu abestu zituen. Orioko Curriculum taldeak beren proiektuari buruzko lana eskaini zuen, Leire Ugartek eginiko monologoaren bitartez. Aurtengo azken berrikuntza Kilometroak 2014koek eskaini zuten. Amaia Iribarren eta Xabier Lizasoren gidaritzapean ikastolako haur-talde batek ikuskizun ederra eskaini zuen hainbat kantu uztartuz, 2004ko Kilometroak hartako *Itsaso zahar, olatu berri* kantuan oinarritutako bertso berriak tartean.

ELIZABETE MANTEROLA



Anjel Lizaso sakristau beterranoa, organo egin berriaren aurrean, pozik, ohi bezala. M. SARASUA

Anjel Lizaso: sakristau lanetan 60 urtez

Oroimenaren kutxa

Urte Berri eguneko mezan zabaldu zuen Unai Manterola apaizak: *gaur 60 urte bete dira Anjel Lizaso Orioko elizako sakristau denetik, 1954ko urtarrilaren lehen egina baitzen sakristau.*

Herrian ez dago inor Anjel baino hiletagehiagotan egondakorik, azken 60 urteotako ia denetan. Ardura isila du, sekula txalotzen ez den lan lotua bezain beharrezkoa, dedikazio jarraitua eskatzen duena, borondate hutsezkoa, diru-saririk gabea. Lan profesionala Arineneko altzari-fabrikan egin du.

Lizaso 1940ko urtarrilaren 18an jaio zen, bixki. 1947an egin zuen lehen jaunartzea, zazpi urterekin. Urte hartan bertan monagillo hasi zen, elizan laguntzen; eta 1954an, 13 urterekin, sakristau izendatu zuten. Ordura arte, ardura horretan jardundako Joakin Aldabe ordezkatzera etorri zen. Eta horretan segitzen du 2014an ere. 1966an, soldadu joatea egokitu zitzaion Ferrolera, Marinan. Bi urte oso eman zituen. Han ere sakristau egon zen.

Ederki aldatu da panorama, gaur egun 30 urterekin ere asko lana topatu ezinik dabilta oraingo gazteak, gizartean lekuri egin ezinik. Orduan, berriz, asko hasten ziren lanean 13-14 urterekin: mutilak, txotxo, baporean, edo pintxe, tailerlean; neskak, eskabetxerian edo neskame. Anjel, sakristau, elizan.

Gai honek, Anjelen ardurak ez du epika handirik, horiek politikari eta gudariantzat izan ohi dira. Sakristauaren ibilbideak aipagarritik iraupena du, jarraikortasuna, denboran ardurari eustea, segitzea, ez etsitzea. Anjel arnas luzeko gizona da. Hirurogei urte sakristau, alajaina!

Erraz esaten da, 60 urte; baina ez da erraza, ardura edozein dela ere. Anjel sakristau egin zenean, Don Jose Maria Astigarra zen Orioko bikario; Juanito Loidi, alkate; eta Pio XII.a, Aita Santu. Orduz geroztik, Jose Mariaren ondoren, Viktorio Unzetabarrenetxea eta Andres Garmendia izan ziren Orion

bikario, Unairen aurretik. Eta Aita Santu, berriz, bost izan ditu Erromako Elizak oraingo Frantziskoren aurretik: Joan XXIII, Paulo VI, Joan Paulo I, Joan Paulo II eta Benedikto XVI. Horiek denak ezagutu ditu Anjel Lizasok, bera sakristau denetik.

Sakristauak eliza du lantoki; haren zaintza eta apainketa, ardura. Elizako santuen artean, Anjelek aingerua ematen du: aldareko aingeruak bezain isila, Aingeru Guardakoa bezain langilea. Ardura nagusia apaizari laguntzea du, sakristiaz eta elizkizunetarako behar diren lanabesez arduratzea: kaliza, ostiak, ardoa, meza-jantziak... baita hil kanpaiak jotzea ere. Garai batean, goizeko seietan jotzen zituen matutiak. Behin huts egin zuen zeregin horretan, 1957ko egun batean: ordu-bete lehenago jo zuen kanpaia. Egund hartan jende asko joan zen ordubete goizago tren-geltokira. Herriko iratzargailua ere bazen Anjel herriko etxe askotan.

Kristauen elizak 2.000 urte ditu. Horren barruan, Anjelek sakristau arduratzen 60 urte ditu. Aukera polita eskaintzen digu gogoratzeko aurten, 2014ko sanpedrotan, Karkarak 25 urte beteko dituela bere zereginen: oriotarrei Orioko kontuen berri ematen.

Musika-banda batean instrumentu batek desafinatzen badu, emaitza negargarria izan daiteke, denek jo behar dute ondo. Herri bat ere hobeto doa, bere ibilbide historikoan, inork desafinatzen ez duenean. Kasu gehienetan, ardura batean luze irautea gauzak ondo egiten diren seinale izaten da.

KARKARARI oraindik asko falta zaio 60. urteurrenerako. Anjelek eredu ona eman dio, aldizkariak 347. zenbaki honekin hasi duen ibilbide berrian. Segi aurrera, aiez ale, etengabe. Urak ere, tantaz tanta, harkaitza zulatu egiten baldin badu, ondo erabilitako hitzak ere bere eginkizuna beteko duelakotan.

IÑAKI ITURAIN

EZPALAK**OSPAKIZUNA**

Erakusleiho jasangarria

Erakusleiho erakargarria jartzen du Mari Jose Iparragirrek bere esku-lanen tailerrean. Ordainak ere izaten ditu gainera: Sshops Donostiak antolatutako Gabonetako erakusleihoen VI. lehiaketako jasangarritasun saria jaso du Iparragirrek iaz egindako gameluak, hiriburuko Iñaki Balerdi harategian jarritakoak. Birziklatzeko material arrunt eta merkeekin egindako sormen lana saritu dute.

HANDIK ETA HEMENDIK

“

Alabak askotan esan zidan bertso-eskolan hasi beharko nukeela eta azkenean kasu egin nion. 50 urte betetzen nituen egunean azaldu nintzen eskolara. Ibai Esoain zegoen irakasle. Oso denbora gutxian aldaketa handia etorri zait bizimoduan.”

Rosi Lazkano, bertsolaria, -Diario Vasco, 2014ko urtarrilaren 14.

“1977an Vinilozko diskoak 20-21 minuturako ematen zuen. Benitoren Bizkaia Maite agertzen zen aldeak 24 minutu neurtzen zuenez orratzak salto egiten zuen.”

Zuhaitz Gurrutxaga, aurkezlea, ETBren *Tumataxak* saioan, 2013ko irailean

ROSANA ARRUTI
ARGAZKILARIA
2014ko
JAUNARI ZEA
99€tik aurrera
Aita Lertxundi, 26-Orio-Telf.: 943 835845

LORETXU JATEXEA
Fusko Gudari, 18 Telf: 943 83 00 07

RAMIRO
argazkiak
www.fotoaramiro.com
fotoaramiro@fotoaramiro.com
610 69 76 68
943 83 10 48

MANTEROLA S/L
ESFERA ETA RETENTZIOKO
BALBULAK
Santiago auzoa - 13 postakantza
Tel: 943 830 743
Fax: 943 134 634
Email: trimanterola@manterola.com
213 00 010 - ZIPUZAOKA
Esferako balbula
4540R balbula zuntz gindura

■ ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Informatika eta *Txanela bizia* tailerrak elkarlanean lantzen ditugu LH5 eta 6n



Ostegun arratsaldeko tailerretan aldaketak izan ditugu gurean. Aurten, beste zikloekin jardun beharrean, LH5 eta 6 mailakook elkarrekin eta bata besteari lagunduaz ari gara lanean.

Bi tailer ditugu: informatika eta *Txanela bizia*. Ikasten ari garen gaia oinarri hartuta, word, power-point, argazki eta bideo kamerak, egunkari digitala, albuma... egiten ari gara informatikan. Sumendiak, eguzki sistema, erliebearen maketak, matematika praktikoa, ikerketak... *Txanela bizian*. Gustura gabiltza.

■ ORIOKO HERRI IKASTOLA

Ikastolako gelak etxeko espazioaren jarraipena izan behar du



2 urteko umea gurasoekin Ikastolara etortzen denean, etxean ordura arte izan duen goxotasuna eta babesa eskaini behar zaio bere garapenean aurrera egiteko. HHko espazioak etxearen jarraipena izan behar du, bi espazio horien arteko komunikazioak umearengan jarraipen imaginarioa sortzen baitu, eta, ondorioz, gurasoeikiko atxikimenduari ez dio kalterik egiten. Horregatik, Ikastolan 2 urteko geletako espazioak etxeko ezaugarrietara moldatu ditugu: espazio irekiak, sukalde imaginarioak, lasai egoteko txokoak...

■ LARDIZABAL HERRI ESKOLA

Eskolako kirol eremua erdibitzea erabaki dugu ikasle on asanbladan



Lardizabalgo ikasleok hilero eskolan egiten dugun asanbladan erabaki dugu eskolako jolas garaietako kirol eremua erdibitzea. Eskolako aurreko aldean kirol eremu handi bat daukagu eta alboan parke txiki bat. Jolas garaietan, orain arte, HHko umeak parkean ibili dira eta ikasle nagusiagoak kirol eremua erabili dute. Txikiak, ordea, asko eta asko dira eta nekez kabitzen dira denak parkean. Horregatik, kirol eremua erdibituta, denok daukagu aukera lasaiago ibiltzeko.



Arene Portularrume
Imanol Arruti
Asier Sanchez
Maddi Alkain

Eskola atariko txakur kakak

Duela gutxi Aiako eskola txikiko atarian txakur kaka bat agertu zen.

Umeek zapaldu eta eskolan zehar barreiatu zuten. Gure etxetan gero eta txakur gehiago dago, eta horien eguneroko irtenaldietan txakurrek beren eginbeharrak kalean egiten dituzte. Hori ez legoke gaizki baldin eta txakurren jabeek kaka jasoko balute.

Badirudi hori ez dela betetzen, kaleak kakaz beteta baitaude eta kaletik goazenean lurrrera begira joan behar izaten dugu zikinkeria ez zapaltzeko.

Gure herrian, Aian, badaude txakurrak kaka egiteko izendatutako tokiak, baina hala ere, hasieran aipatutako egoerak ematen dira eta horrek batzuetan haserretu egiten gaitu, ez baita batere gustagarria txakur kaka bat zapaltzea, nahiz eta batzuk pentsatu zorte onekoa dela.

Bestalde, Udaleko langileak ere kexu izaten dira herriko zelaietako belarra moztean, aurkitzen diren zikinkeriarekin.

Gure desadostasuna argi geratu delakoan, hemendik gonbite bat luzatu nahi diegu txakur jabe guztiei beren txakur kakak jaso ditzaten.

Aian badaude txakurrak kaka egiteko izendatutako tokiak

PUBLIZITATEA

IZARRA BIDEA - IZARRA BIDEA - IZARRA BIDEA - IZARRA BIDEA

TEKA BITROZERAMIKA 179€

BALAY 269€

IZARRA

1000 R.P.M. 7 KILO

SAMSUNG 32" 269€

BOSCH TASSIMO 39,95€

TEKA LABEA 249€

DENDAN ESKAINTZA GEHIA

10 MILARET INTERESIK GARE

Tien 21 EUSKO GUDARI - 44 - 943 833 881 Tien 21

INSTALACIÓN DE VENTANAS

Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel.: 943 13 00 77
Fax: 943 51 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Amaritzale Kalea, 65
20810 ORIO (Gipuzkoa)

LURDES
ARRONDEGIN

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidalak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80. Mngikorra: 656 78 30 01 - 656 78 20 99

ANTILLA
jantokia

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

tel/fax: 943 89 00 69

URBIDE

7.30 NTZA - 3.30 NTZA
GASA - BA NU ERAKUS/ETA

Perpetua berriztatze

Santi Barranco aseguru agentea

Asteaga 2, 2. solkera ORIO

Telefono: 943 219 221 e postak: sbarranco@segurosbbilbao.com

SEGUROS BILBAO

Seguro: CATASIA GORRITTE

SU KIA
TARRELA JANTOKIA

Ona gheola gara... kamakopa eta TOPAK

- OLASKO UHREK UHARATLEKU
- FOLINKO MENUA
- LONKARAK
- OSEA

Tel: 943 062 129
20810 ORIO (Gipuzkoa)

XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Alusio automatikoak

50 urte zerbitzu ematen

943 83 17 74

Amaritzale, 31 - 20810 ORIO

ASADOR XIXARIO

Trab. Gortia Kalea 2
Tel. 943 2604 - ORIO

Gabon
TABERNA

plater handiak pintxoak

Tfnos: 943 83 06 09

Osteguneroko azokako tasak eguneratu ditu Orioko Udalak



Gerra Zibilaren aurretik egiten zen dagoneko azoka Orion. KARKARA

Urteak eta urteak dira Orion azoka egiten dela. Baserritarren erakusleihenak bestelako izaera du gaur egun. Inguruko herrietako produktuak –arropa, oinetako eta osagarriak gehienbat– plazaratzera etorri da azoka.

Azken urteotan ez da aldaketa handirik izan postu kopuruari dagokionez: 20 inguru dira denera. Horietako batzuen kasuan, gainera, saltzaileen be-

launaldi ezberdinak ezagutu ditugu Orioko azokan.

Hamar urtez –2002tik 2012ra– Orioko Herri Ikastolaren aurreko plazan izan bada ere, herriko plazan izan du berez lekua azokak.

Tasetan aldaketak

Postuak zabalean hartzen dituen metro koadroko eta eguneko ordaintzen

ditu tasak azokara datorren saltzaileak. 2006. urtean 1,29 eurokoa zen ordaindu beharreko unitatea. Azken zortzi urteetan igoera txikiak egin dizkie Orioko Udalak: 1,51 euro ordaindu zituzten metro koadroko eta eguneko 2013an.

2013ko irailaren 12an egindako merkataritza mahaian, ordea, azokako saltzaileek ordaintzen zituzten tasez kexu azaldu ziren herriko zenbait merkatarik. Inguruko herrietako datuak aurkeztu zituzten: Orion adina ordaintzen dute Usurbilen. Aldiz, 1,75 euro Lasarten, 2,58 euro Getarian eta 3,70 Zarautzen.

2013ko azaroaren 10ean aurkeztu zuten merkatarik horiek proposamen zehatza: tartean, kanpotarrei tasak 4 aldiz biderkatzea eta azoka hilabetean behin antolatzea.

Ogasuneko batzordera eraman zuen proposamena Gobernuak eta udal ordenantza fiskalekin batera osotasunean eztabaidatu eta onartu ziren urriaren 31ko udalbatzarrean. Dena den, tasak bikoiztea –ez lauikoiztea– onartu zuten. Hilabete jendaurrean egon eta inolako alegaziorik gabe, behin betiko onartu ziren azokako tasak.

Horren aurrean, azokako saltzaileek beren desadostasuna adieraziko diote Udalarik AVAG- Gipuzkoako saltzaile ibiltarien elkartearen bitartez eta elkarrekin biltzekoak dira.

EAJ

Azoka, beste aukera bat

Orioko EAJko kideei ostegunetan egiten den azoka egokia dela iruditzen zaigu. Herritarrek herrian bertan erosketak egiten jarraitzeko beste aukera bat da; beste eskaintza mota bat eskuragarri jarritzeko andre eta gizonei. Ostegunetan inguruko auzoetako jendea ere inguratzen da herriko plazara eta herriko beste komertzioei aprobetxatu dezaketen aukera bat sortzen zaie baita ere.

Bildu

Bertako produktuen azoka

Merkatariek sufritzen ari dira, guztiak, eta justuena gastuak berdintzea dela uste du Udalak. Gobernu taldea prest dago azokako kolektiboari laguntza eskaintzeko. Udalak justua izan behar duela uste du, ordea. Eseri eta hitz egiteko intentzio guztia dugu.

Pixkanaka, herriko saltzaileekin osatutako azoka bultzatu nahi du Orioko Udalak, bertako produktuei irteera emateko.

Orain

Merkatarien proposamena

2014rako ordenantza fiskalak lantzeko orduan azokako postuek 2008tik 2013ra m²/ko/eguneko 11 zentimoko -1'40tik 1'51ra- igoera izan zuten; inguruko eta gurearen tankerako herri gehienak hiru euroren bueltan dabilzanean. Orioko merkatarien iradokizunez, tasen proposamena hau izan zen: Orion erroldatutakoak 1'51 euro m²/ko/eguneko; Orion ez erroldatutakoak 3'02 euro m²/ko/eguna.

KARKARA.COM

Politika


Karkaran izan da Martin Garitano Ahaldun Nagusia

Gipuzkoako herri bat bisitatzen du urtero Martin Garitano Gipuzkoako Diputatu Nagusiak. Orion izan da aurten, urtarrilaren 29an. Herriko elkarteekin eta herritarrekin bildu zen Garitano, eta KARKARAN ere izan zen, eguerdian. Euskarazko tokiko komunikabideek, eta bereziki KARKARAK, dituzten zailtasun eta erronkei buruz aritu ginen hizketan. Erakundeen babesa ezinbesteko dela eta etorkizuna bermatzeko lan egiteko eskatu genion.

@ www.karkara.com/albisteak/martin-garitanok-oriora-egin-go-du-bisita/

**HASI TXIOKA**

Lehen begiratuan,
gustatu al zaizu
KARKARA berria?

**Musa****Gipuzkoako txapelketa Orion izango da**

Estreinakoz jokatu da Orion Gipuzkoako mus txapelketa otsailaren 15ean. Gipuzkoako 120 inguru bikotek beteko dute egun horretan herriko plaza, enbido eta hordago artean ibiltzeko. Tartean izango dira Antxon Altuna, Asier Altuna, Jon Ubegun eta Ibai Esoain. Horrez gain, euskal giroan ospatuko den Gipuzkoako txapelketa behar bezala egiteko laguntzaileak behar dituztela adierazi dute antolatzaileek.

Kultura**Oteizaren katalogo arrazoitua laster**

Jorge Oteizak eskultura alorrean egindako hainbat eta hainbat lan bi liburukitan bildu ditu Txomin Badiola eskultoreak, Altzuzako Oteiza Museoko arduradunen enkarguz. 1.000 orrialde baino gehiagoko lana osatu du Badiolak, Oteizak 1908 eta 2003 urte artean egindako 2.800 eskultura-lani buruzkoak jasoz bertan. Jatorrizko lanak, bertsioak, aldaerak, serieak... aurki daitezke Nerea argitaletxeak udaberrian argitaratuko duen lanean. Bost urte baino gehiago eman ditu Badiolak katalogoa osatzen.

Kilometroak 14**Azoka egingo da Aian**

2014ko Kilometroak jaiak oihartzun zabala izan dezan, *Zu non, Erria txikota! han egitasmoa* aurkeztu du Orioko Herri Ikastolak. *Erria Txikota* leloa munduan zehar zabalduta ikusi nahi dute antolatzaileek, duela 10 urte *Itsaso zahar, olatu berri* Laoseraino, Etiopiaraino eta Pakistan inguruetaraino ailegatu zen bezala. Lagundu nahi duenak, egitasmoan parte hartu nahi duenak, argazkia http://www.kilometroak.net/erria_txikota_han helbidera igo beharko du zuzenean.

Arriku Iribar @ArrikuIribar
Jon Azkue eskubetoi jokalaririk onena Espainiako selekzioarekin Alemanian IV Nazioen torneoan: Alemania, Frantzia, Portugal, Espainia. 10-12ra

urt. 10

Jabier Zabaleta @ja2er
Kutxabankek gaztekeraz erantzuten die euskaraz egindako galderei zuzeu.com/2014/01/28/eie... Noiz arte horrela? :-{


19 ordu

Amagola Gurrutxaga @AmagolaGu
Nago gaurko #bertsoeguna-k jende askori eman dion sorpresa handienetakoa bat Rosi Lazkanok dela

urt. 25

Euskaraz bizi-bizi @euskabizibizi
Honatx EuskalApps, euskaraz ikasteko eta lantzeko tresna berriak gailu mugikorretan (smartphone, tablet...): euskalapps.net/category/euske...

urt. 22



Karkara

Espainiako bandera jartzera behartu dute Aiako Udala

Espainiako bandera modu iraunkorrean jarri beharko du Udalak udaletxe aurrean eta udalbatzar aretoan, 659/2013 epaiaren arabera. Horixe ebatzi du EAEko Auzitegi Nagusiak. 2013ko apirilean Administrazioarekiko Auzien Donostiako 3. Epaitegiak Aiako Udalaren alde emandako ebazpena ezeztatu du horrela. Epaiaren arabera, epaiketa gastuen kargu egin beharko du Aiako Udalak eta ezingo du errekurtsorik jarri. Bandera non jarri erabakitzeke iritziak biltzen ari dira aiarrak orain.

@ karkara.com/albisteak/espainiako-bandera-aiako-udaletxean/



Jendartea

Sahararekin solidario izateko eskatu du Saharautz-Oriok

Saharar Ilargierdi Gorriaren eskakizuna betetzeko, X. Sahararen aldeko euskal karabana: *Piztu Itxaropena* jarri dute martxan hainbat euskal elkarte, tartean, Saharautz-Oriok. Iaz 97 kaxa bildu ziren gurean; 1.200 kilo. Aurten, ordea, gehiago bildu nahi dute; oriotar bakoitzeko kilo bat. Urtarrilaren 27tik otsailaren 1a arte jasoko dituzte lekaleak, arroza, dilistak, atun latak, azukrea, konpresak eta jostailuak ikastetxeetan eta zenbait dendatan. Otsailaren 1ean, berriz, herriko plazan jarritako jaima batean hartuko dituzte Saharara bidaltzekoak.

@ karkara.com/albisteak/5-000-kilo-bildu-nahi-dira-saharara-bidaltzeko/

Iparraldeko herri kirolen erakustaldia, talo usain artean



@albisteak/giro-aparta-izan-zen-iparraldeko-herri-kirolen-erakustaldian/

Denetariko musika bertsio gauaren laugarren edizioan



@ www.karkara.com/albisteak/orion-musik-apest/

Independententziaz aritu zen Pako Aristi idazlea



@ www.karkara.com/albisteak/pako-aristi/

ZERBITZUAK**AZOKA**

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Salgai

- 16 metro² ko garaje itxia salgai Orion, Goiko Kalean. Tf: 699 716 253 edo 669 254 741.
- Garajea salgai Orioko Goiko Kalean -Almirante Oa-. Tf.:645715841-645715840.
- 3 logelako etxebizitza salgai Goiko Kalean. Sar-tzeko moduan. Prezioa: 210.000€. Kontakturako telefonoa: 630149 835.
- Garaje itxia salgai Orioko Goiko Kalean. Tf.: 649 308 092.
- Bugaboo Camaleon ume-kotxea eta *kukoa* salgai. Hiru funda (kolo-retan) eta zakuarekin. Kukoarentzako pikezko zaku zuria eta barruko funda zuria. Dena 200 euro, xasis gabe. Oso ego-era onean. Tf.: 606 952 320
- Inglesina haur-kotxe urdin iluna salgai. Berri-berria. 350 euro. Tf.: 606 952 320.

Auto-partekatzea

- Orio-Miramón teknolo-gia parkea joan-etorrira-ko autoa partekatzeko prest. 08:15ean Oriotik abiatu eta 13:30ean itzuli. Tf.: 655 702 613.

Alokatu

- Otsaila-ekaina bitarte-rako 2-3 logelako alokai-ruko pisu bila nabil. Jon (675711348)
- Etxebizitza alokagai Goiko Kalen. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainugela. 600 euro. Tf.: 656 708 603 (Amaia).
- Etxebizitza alokagai Orion. Loft erakoa, bara-tza eta terrazarekin. 700 euro. Tf.: 600 301 350.
- Galdutakoak
- Brotxe obalatu beltza galdu dut Errege egune-an. Zilarrezko brokala du inguruan eta estimu han-dia diot. Tf: 606 751 603 / 619 765 083.
- Bizikleta berri berria la-

purtu ziguten Anibarko Portuan urtarrilaren 5ean, 12:30ak aldera. B^oT-win markako txirrinda da, Run Ride urdina. Pe-dalik ez du, haurren ore-ka lantzeko bizikleta bai-ta, eta ez dauka frenorik. Bizikleta hartu edo ikusi baduzu, mesedez jar zai-tez gurekin harremane-tan (Stepan- 630246785;- Olga -644225871).

Beste batzuk

- Ingelesa praktikatzeko mintzapraktika jarri dugu martxan Orion. Os-tegunero elkartzen gara Antilla tabernan, 17:00etatik 19:00etara. In-teresa duenak hara ager-tu besterik ez du egin be-har.

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	05:13 eta 17:39	11:23 eta 23:38	
02	05:58 eta 18:23	12:08 eta	
03	06:43 eta 19:08	00:23 eta 12:53	
04	07:29 eta 19:54	01:09 eta 13:038	
05	08:17 eta 20:43	01:56 eta 14:26	
06	09:29 eta 21:40	02:48 eta 15:19	
07	10:13 eta 22:50	03:47 eta 16:20	
08	11:31 eta	04:58 eta 17:33	
09	00:11 eta 12:53	06:18 eta 18:48	
10	01:24 eta 13:58	07:30 eta 19:50	
11	02:20 eta 14:47	08:25 eta 20:38	
12	03:04 eta 15:26	09:08 eta 21:18	
13	03:40 eta 16:00	09:44 eta 21:53	
14	04:13 eta 16:32	10:17 eta 22:27	
15	08:06 eta 17:02	10:49 eta 22:59	
16	05:14 eta 17:32	11:20 eta 23:31	
17	05:44 eta 18:01	11:52 eta	
18	06:15 eta 18:32	00:03 eta 12:24	
19	06:48 eta 19:06	00:36 eta 12:59	
20	07:23 eta 19:44	01:13 eta 13:37	

ZAINTZAKO BOTIKAK**OTSAILA**

- 1 eta 2an, Zulaika.
- 3an, Mutiozabal.
- 4an, Iriarte.
- 5ean, G. Artiñano.
- 6an, Azaldegi.
- 7an, Etxeberria.
- 8an eta 9an, G. Artiñano.
- 10ean, Iriarte.
- 11n, Larrañaga.
- 12an, Mutiozabal.
- 13an, Zulaika.
- 14an, G. Artiñano.
- 15 eta 16an, Azaldegi.
- 17an, Larrañaga.
- 18an, Etxeberria.
- 19an, G. Artiñano.
- 20an, Iriarte.
- 21ean, Zulaika.
- 22 eta 23an, Larrañaga.
- 24an, Iriarte.
- 25ean, Zulaika.
- 26an, G. Artiñano.

- Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

AGENDA**Orio****Dantza**

- Otsailaren 15ean, Danbolin musika eskolako dantza tailerrekoen dantza emana, 17:00etan, Karela kiroldegian.

Kros txikia

- Otsailaren 2an, Zaragueta Herri Esko-lak antolatuta, Kros txikia, 11:00etan, es-kola aurrean.

Irteerak

- Otsailaren 16an, Talai Mendi mendi el-karteak antolatuta, Albako Harriara irte-

era. Izena ematea: Uranga burdinde-gian.

- Otsailaren 18an, Zaharren Babesle-kuak antolatuta, Arantzazura eskur-tsioa. Ondoren, Aburuza sagardotegian bazkaria. Izena ematea: otsailaren xxe-an, Zaharren Babeslekuan.

Traste zaharrak

- Otsailaren 12an, traste zaharren bilke-ta. Udaletxera deitu behar da -943 830 346- zer bota nahi den esateko.
- Otsailaren 26an, traste zaharren bilke-ta. Udaletxera deitu behar da -943 830 346- zer bota nahi den esateko.

Aia**Erromeria**

- Otsailaren 2an, Argilaurdenak, 18:30etik 21:30era, Aristerrazun.
- Otsailaren 9an, Miren, Agurtzane eta Allaur, 18:30etik 21:30era, Aristerrazun.
- Otsailaren 16an, E. Bengoetxea, E. Irao-la eta I. Letamendia, 18:30etik 21:30era.

Erakusketa

- Otsailaren 8an, Joxe Amiamaren hi-tzaldia, 17:00etan, Lardizabal eskolan. Gaia: eskola eta familiak. Harremana, komunikazioa...

 karkara Karkara aldizkariak	 Eta Arkupoko dendetan	<i>Urtarrileko sarituak:</i> Gabriel Mendizabal Makazaga (<i>Rosa arropa dendan</i>) Maite Manterola Elorza (<i>Melikari arropa dendan</i>)
 Karkara laguntzaileentzat	 sana dute	
30 €	Arkupoko dendetan pastak zekin	

azkue 
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
T/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com


UROLA KOSTA
LAN-POL TSA
ENPLEGUAREN ERKATEKIA

www.enplegua-urolakosta.org
lan-poltsa on-line
Aia - Getaria - Orio - Zarautz - Zumaia

LAN BILA BAZABILTZA:

- Orientazioa
- Ikastaroak
- Enpresa sortzeko laguntza
- Enplegu Zentroa

LAN-POL TSA INTERNETEZ, on-line

- Eman izena
- Ikusi lan-eskaintzak
- Eman izena lan eskaintzetan

Urdaneta bidea 6 - 20800 Zarautz /
Tel.: 943 860908 • lanpoltsa@urolakosta.org

Bihotzeko ikastola

Orioko Herri Ikastola



Matrikulazioa

Otsailaren 3tik 14ra

GURASOEN AURKEZPEN BILERA | **ATE IREKITAKO EGUNA**
Urtarrilak 22, asteazkena, 17:00etan | Urtarrilak 18, larunbata, 11:00etan

Bulego ordutegia

08:30-13:30 / 14:30-18:30 • Tel. 943 834 704 / 943 894 360

e-posta: orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

